



BEREZIA: SANTAMASETAKO ARGAZKIAK

# Arrasate

P R E S S

2000.eko  
abenduaren 29a  
523. zenb.








Araba Etorbidea 5 •  
Tel. / Faxa: 943 79 41 82  
**ARRASATE**



Araba etorbidea 20 •  
Tel. / Faxa: 943 79 23 51  
**ARETXABALETA**



Asunción, 1 •  
Tel. / Faxa: 943 79 10 97  
**ARETXABALETA**



Mitarte 3 •  
Tel. / Faxa: 943 77 04 55  
**ARETXABALETA**



**50 urte baino gehiago gure bezeroen zerbitzura.**

**Eskerrik asko emandako konfiantzagatik**



## urteurrenak

### Seber Altube beka

■ 46. zenb.  
(1989.12.29)

Jerardo Elortza oñatiarrak eskuratu zuen Seber Altube beka, Arrasateko euskararen ikerketa linguistikoa egiteko. 700.000 pezeta eman zizkioten lan hori egiteko.

### Jose Letona beka

■ 46. zenb.  
(1989.12.29)

Arrasateko Udalak onartu egin zituen Jose Letonaren izenarekin sortu ziren bekak. Bata Arrasate eta inguruetakoko geologi ikerketa egiteko zen eta bestea, berriz, Arrasate frantsez okupazioaren garaia aztertzeko.

### Udalako Ingurugiro Eskola

■ 46. zenb.  
(1989.12.29)

Abenduaren 21ean Arrasateko Udala eta Eskoriatzako Irakasle Eskolaren arteko aurrehitzarmena sinatu zen, Irakasle Eskolako Udalako Ingurugiro Eskolaren plan-gintza pedagogikoa prestatzen lagundu eta laguntza horren ordainketa finkatzeko.

### Diru eskaria dendariei

■ 46. zenb.  
(1989.12.29)



laguntzeko hileru kuota jakin bat ordain zezaten, hala nahi izanez gero.

Arrasateko presoen eta iheslariensenedei laguntzeko taldeak eskaria egin zien herriko hainbat dendariri, familia horiei

### Goikobalu, abian

■ 46. zenb.  
(1989.12.29)



tarren artean estreinatu zen. Garai hartan Goikobaluko lehendakaria Ignacio Agirre zen.

Ordizian estreinatu zen Goikobalu abesbatza. SUDC elkartearen esku-tik sortu zen eta abenduaren 23an Arrasateko herri-

## besteek esana

«Orain gutio ulertzen diat mendia hola gurtzea hik hautatua izaki nonbait hiretzako gurtzea alperrik diat zergatiaren aztarranik bilatzea hi hor haizela errexago duk mendia begiratzea».

(Nafarroako bertsozale elkarteak antolatuturik, Iruñean egin zen Bertsuaren barruan ekitaldi hunkigarria egin zuten Felixen oroimenez)

Aitor Sarasusa  
**BERTSOLARI**  
(2000ko negua)

**ARKO**  
ARRASATE  
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS  
Argitaratzailea: ARKO (Arrasate  
Komunikabideak) Oñalora kalea, 31  
20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 71 25 11. Faxa: 943 71 23 89  
E-mail: arrasatepress@euskalnet.net  
Arrasate Irratia: 943 71 17 31

Laguntzailea: Arrasateko Udala. Zuzendaria: Marijo Deogracias. Kazetariak: Ubane Madera, Leire Kortabarria, Alazne Ostolaza eta Maider Osa. Publizitatea: Nerea Zallo, Arantza Lagunilla eta Natalia Martinez. (Tel.: 943 71 23 91/ 943 71 23 92). Zuzentzailea: Sergio Azkarate. Administrazioa: Agurtzane Gaintzarain, Ane Berebizbar (Tel.: 943 71 23 90) Diseinua: Maddi Trubuelo. Asteburuetako berriemaketa: Lorea Agiriano. Banaketa arduraduna: Nalara Odriozola-AED. (Tel.: 943 77 12 28). © ARRASATE PRESS. Tirada: 6.500. Lege-Gordailua: 1124/88. ISSN: 0214-4654. Frankeo kontzertatua. Inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

ARRASATE PRESSEK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azala: Maddi Trubuelo.

## aurkibidea

- Lehen begiratua . . . . . 3
- Santamasetako berezia. 4/8
- Asteko hitzorduak . . . . . 10
- Urtarrila . . . . . 11/12
- Otsaila . . . . . 15/16
- Martxoa . . . . . 17/18
- Apirila . . . . . 20/21
- Maiatza . . . . . 22/24
- Urteko zenbakiak banan-banan . . . . . 26/30
- Ekaina . . . . . 33/34
- Uztaila . . . . . 35/36
- Abuztua . . . . . 37
- Iraila . . . . . 38/39
- Urria . . . . . 40/42
- Azaroa . . . . . 45/46
- Abendua . . . . . 48/49
- Urteko argazkiak . . . . . 52/54








## SABELA BETE...

Hor dituzue lagun goiztiar batzuk. Izan ere, aurtengo berritasun bat

probatzeko irrikaz zebiltzan, eta Herriko Plazara abiatu ziren,

txotxgunean parte hartzera. Dena dela, sagardoari lagun egiteko


hantxe bertan aurkituzten talogileak.



## ...HANKAK ASTINDU...

Dantza saioak barra-barra izan ditugu aurtan, gehienak Herriko Plazan. Binakako fandango eta arin-arin lehiaketez gain, Arrostaitz eta Lore Gazteak taldeek eskainitako dantza ikuskizunak ere izan genituen.


## ...ETA ZER EDO ZER IKASIA...



Eus-  
kal Herriko antzinako bizimodu eta usajeen inguruko ikasgai polita eskaini digu aurtan Komisi-  
ñuak, baserrietako tresna zaharren lehenengo erakusketaren bidez. Hori bai gure baserriarendako omenaldi bikaina!

## NI SANTO DOMINGORA, ZU ZANZIBARRERA

ATECE elkarteak bi bidaiara zozkatu zituen abenduaren 23an. Jorge Fernandezek eta Jon Anduezak atera zituzten zerbaki saridunak: Santo Domingora 5.454 zerbakiduna joango da, eta Zanzibarrera, 3.897 zerbakiduna. Zorionak!





Aukera  
biologikoa



Zarugalde kalea, 8 • ARRASATE • Tel./Faxa: 943 79 56 38

*Argaltzeko metodorik aurreratuena  
Erretzeari uzteko metodoa*

- Elikadura biologikoa
- Sendagile naturista, iridiologoa (k.z. 6166)
- Medikuntza Tibetarra
- Sauna terapeutikoa  
(lunbagoa, ziatika, artrosia, etab.)
- Siatsu masai japonesa

Urte berria ohitura berriak!

# vit·sec

KALITATEZKO ARROPA GARBITEGI BIZKORRA

**Eskerrik asko,**  
lehenak izaten  
lagundu diguzuelako

- Zerbitzuan lehenak
- Ekologian lehenak
- Kalitatean lehenak

*Mila esker, zorionak eta urte berri on!*

**vit·sec**

Otalora Lizentziatua, 22 • ARRASATE • Tel.: 943 77 17 82



# ITURRIOTZ

A R R A S A T E

## *Etxebizitza-multzoa*

*Azken  
etxebizitzak eta  
lokalak!!*



Eragilea:

**ZERRAJERA  
ETXEBIZITZAK, S.L**

Informazioa eta salmenta:

Iturriotz kalea, 35  
ARRASATE  
Tel.: 943 77 19 67 • 943 77 19 68





1



2




3



4



5



6



7

## IRABAZLEAK


- 1 **Barazki lehiaketako 1. saria:** Tomas Larrañaga (Antzuola).
- 2 **Barazki lehiaketako 2. saria:** Mariasun Iturbe (Arrasate).
- 3 **Barazki ekologikoen saria:** Jose Lonbide (Aretxabaleta).
- 4 **Fruta lehiaketako 1. saria:** Jose Luis Medina (Aramaio).
- 5 **Fruta lehiaketako 2. saria:** Antonio Iparragirre (Mutriku).
- 6 **Gazta lehiaketako irabazlea:** Jesus Aranburu (Idiazabal).
- 7 **Ezti lehiaketako irabazlea:** Martin Garmendia (Bergara).






## ARTISAU FINENAK

Ez da nerabea, baina eskuak ondo arin ditu oraindik gure artisauek. Honek artilez, besteak egurrez, hark larruz... kontua da artisauek lan liluragarriak egin zituztela bisitarien begi aurrean.




## GUSTU GUZTIETARAKO ABEREAK

Zapelaitzak, arranoak, hudoak, belatzak... etorri ziren lehenengoz Santamasetara. Eta hori ikusmina piztu zutena! Baina, haiengana hurbiltzera ausartzen ez zirenek abere otzanagoak aurkitu zituzten Azoka plazan: txerri txikiak eta helduak.



## AUPA, GOENATXO



Errekorra gainditu zuen Arrasateko harriarekin!



MARKO-JARTZEAK

**ALDEDI**

Biteri, 8 • ARRASATE

Tel.: 943 79 13 05 • Faxe: 943 79 13 84


# ESKIÑA taberna

Urte berri on!!

Olarte, 25 • ARRASATE • Tel.: 943 79 20 20



Consultarum, Egunkaria



**ARRASATE**

**KIROLAK**

# **Etorkezunari begira**

2001. urte  
sasoitsua!



**Kirol bakoitzari erantzun bat**

**Kontzeziño, 8 • Tel.: 943 79 46 12 • Faxar: 943 77 05 30 • ARRASATE**



### umeendako opariak

Gipuzkoako Foru Aldundiak *gabonetan opariak euskaraz* kanpaina ekarriko du Arrasatera. Hilaren 30ean Galtzagorriak joango dira

Herriko Plazara, goizeko 11etan.  
Puzgarriak, pegatinak eta bestelakoak banatuko dituzte umeen artean.

### musika emanaldiak

Goikobaluren emanaldia izango da gaur, 19:45etan, parrokian. Bestalde, hilaren 31n kontzertua eskainiko du Arrasate Musika-

leko bandak Amaia antzokian, 13:00ean. Aurrez, 11:30ean, kalejira egingo dute.

### txikilandia

Ordutegia: urtarrilaren 2tik 4ra, 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara. Urtarrilaren 5ean goizez bakarrik zabalduko da. Txikilandia Musakolako kiroldegian

egongo da eta Txatxibusa ere hantxe izango da. Sarrerak aurrez eros daitezke Txatxilipurdin eta urtarrilaren 1ean Seber Altuben egongo den Txatxibusean.

### presoen aldeko ekitaldiak

Baraualdian daudenek Eroskirainoko giza-katea egingo dute gaur, egubakoitza, 18:30ean. Uarkapeko pilotalekutik irtengo dira. Hilaren 30ean, berriz, 08:30ean pre-

soen aldeko diana joko dute; 12:00etan enkar-telada egingo dute udaletxe aurrealdean eta 19:00etan manifestazioa egingo dute.

### zabor bilketa

Hilaren 31n 14:00etan bilduko da zaborra. Beraz, zaborra 13:00etatik 14:00etara bitar-

tean ateratzea eskatzen da, domeketako bilketa puntuetara.



## ESKER ONA

2000.eko abenduaren 23an hil zen

## Juan Pablo Garai Villar

Bere familiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, hileta elizkizunetara etorri izana eta bere bizitzan zehar lagun izan diren guztiak.



LEHENENGO URTEURRENA

## Bittor Guridi Aguirreurreta

*Gaztetasuna lagun harturik beti jarrai eta ekin... Herio beltzak elur zuritan eraman zaitu berekin*

Urtebeteko meza, Nuestra Señora de La Merced elizan, abenduaren 30ean, zapatua, arratsaldeko 19:00etan ospatuko da.



Aurrez esker ona bertarutzen zareten guztioi. Bere familia.



## Lehenengo lan-heriotza

(479/11. or.) 2000.1.14

Josu Jon Benito gazte mondragoetarra hil egin zen urtarrilean Oñatiko Txintxurreta lantegian izandako lan-istripu baten ondorioz. Aurten Euskal Herrian lan-istripuz hildako laugarren langilea izan zen gazte arrasatearra. Dirudenez, zama bat gainera erori zitzaionean hil zen Josu Jon Benito.

Gertaera tamalgarri horrek hainbat protesta piztu zituen. Alde batetik, sindikatu guztiek langileen osasun plangintza betetzea eta horretarako baliabideak ipintzea eskatu zieten enpresei eta erakundeei. Bestetik, Txintxurreta enpresari salaketa bana jarri zioten Josu Jon Benitoren familiak eta Comisiones Obreras sindikatuak.



## Larrialdi plana onartu zen

(479/11. or.) 2000.1.14

Larrialdi egoerei aurre egiteko plana abian jarri zuen udalak. Larrialdietarako prozedurak ezarri, autobabesa bultzatu, arriskuak antzeman, prebentziorako neurriak zehaztu eta herritarrek arriskuen eta hartu beharreko neurrien jakinaren gainean jartzeari. Horra hor egitasmoaren helburuak.

Hondamendia ekar lezaketan 12 egoera aurrez ikus-

ten zituen planak: lur-jauziak, uholdeak, elurteak, suteak, industria-jarduera arriskutsuak, izurriteak eta gai arriskutsuen garraioa, besteak beste. Arrisku handiko guneak eta aterpeak izendatzen ziren: sute kasuan, adibidez, bi kiroldegiak, Montteron, eta San Frantzisko Xabier, San Andres, Erguin eta Musakolako ikastetxeen egoitzak.

## Cerrajerako fundizioa, gordetzeko

(479/12. or.) 2000.1.14

1928an eraikitako Cerrajerako fundizio zaharra ez botatzea erabaki zuen udalak, balio arkitektoniko handia aintzat hartuz. Makineria atera zuten gero industria museoan gordetzeko. Fundizioa egin zen garaian hasi ziren eraikinetan burdina erabiltzen. Mondragoeko egoitza hau eta Parisko Eiffel dorrea teknika berberaz eraiki ziren. Ia 10 metro zeuden zutoin batetik bestera, eta 90 metro luze zen.



## aurrez aurre



**K**omunikabideen bitartez ezagutzen nituen Arrasaten zeuden liskarrak. Baina, egia esan, etorri nintzen horrek ez ninduen bereziki kezkatu. Gehiago kezkatzen ninduen hau nire lehenengo lan-esperientzia izateak; teorian gauza asko jakin arren, praktikan ez da horrela izaten".

### AINHOA GUENAGA

Arrasateko  
Udaleko idazkaria  
2000.1.21

### Alkatea, baraualdian

(479/12. or.) 2000.1.14

Xabier Zubizarretak, Arrasateko alkateak, baraualdia eta itxialdia hasi zuen Euskal Herritarrok-eko beste 25 alkaterekin batera. Euskal presoak Euskal Herrira ekartzea eskatu zuten. Horretarako, Altsasuko Udaletxean batu ziren astebez. LABeko 60 kidek ere itxialdia egin zuten Bergaran.

aurtengoa, eta beste zazpi talderekin lehiatu ziren arrasatearrak. Erreteriko Ereintza elkarteak antolatua zuen, betiko moduan, txapelketa hori.



### Barre Busa

(479/17. or.) 2000.1.14

ETBko Barre Busa programak saioa egin zuen Arrasaten, Txirri, Mirri eta

Txiribiton, Txan magoa eta beste hainbat lagunekin. Bete egin zen Amaia antzokia.



### Bizkorrek, txapeldun

(479/20. or.) 2000.1.14

Bizkorrek taldeak irabazi zuen Aitor Lopez Rekarte saria. Bonba Taldiek eta Mondrak antolatu zuten umeendako zazpinako futbol txapelketa hori. Zortzi talde aritu ziren eta Aitor Lopez Rekartek eman

ziren kopa txapeldunei.



### Arrasate eta turismoa

(480/12. or.) 2000.1.21

Gipuzkoa Zein Berdea izeneko turismo proiektu bateratua aurkeztu zuten Gipuzkoako barnealdeko bost eskualdek, tartean Debagoienak, eta Arrasateren balio turistikoak azpimarratzen ziren. Erdi Aroko Mondragoeko

monumentuak gomendatzen ziren, Portaloia edo harrisiaren atea, besteak beste; bestalde, Santamasetako edo Maritxu Kajoiko giroa dastatzea proposatzen zitzaizaien turistei.

### Plastikoak birziklatu

(481/10. or.) 2000.1.28

Mendi Nekazaritza Elkarteak Debagoieneko baserrietako plastikoak birziklatzeko kanpaina hasi zuen. Auzoz auzoko bilketa zerbitzua antolatu zuen. Debagoienean 25 geltoki antolatu ziren.

### Goikobalu txiki, laugarren

(479/17. or.) 2000.1.14

Laugarren geratu zen Goikobalu abesbatzaren ume sailla Erreteriko Gabon kanten lehiaketan. 53. aldía izan zen



aurrez aurre



**G**aratu gabeko herrietan osasun arazo latzak dituzten umeak aurkitu eta han tratamendurik ez badago, herri garatueta ekartzen ditugu senda ditzaten (...). Umea ikustean hartzen da benetako erabakia, oso esperientzia hunkigarria da eta. Mondragoen arrakasta izango dugula uste eta espero dut. Beste toki batzuetan horrela izan bada, zergatik ez hemen?

**EVA EGIZABAL**  
Gizakien Lurra-ko  
ordezkaria Debagoiengan  
2000.1.28

## Emaitza onak atletismoan eta judoan

(480/27. or.) 2000.1.21, eta (481/20. or.) 2000.1.28



Gipuzkoako txapelketatik urrezko, zilarrezko eta

brontzezko domina bana ekarri zituzten etxera Arrasate Kirolak Atletico Taldekoek. Unai Sarabiak brontzea irabazi zuen 60 metroetako lasterketan; zilarra, Maitane Arizmendiarietak, 400 metroetan; eta urrea, Jonathan Perezek, pertikan, Lau metroko jauziarengatik. Gipuzkoako judo txapelketan ere emaitza onak lortu zituzten arrasatearrek: Leire Zabala 17 urte azpikoetako txapelkun izan zen, eta Maddalen Aranegi, 20 urte azpikoetan.

## Fagorrek 1.800 lanpostu berri

(481/10. or.) 2000.1.28

Fagor Elektratresnak kooperatibak 2001etik 2004ra 1.800 lanpostu sortzeko asmoa jakinarazi zuen. Asmo horiek Fagor Elektratresnak-en 2003. urte arteko nazioarteko egitasmoaren zati bezala aurkeztu ziren. Izan ere, Espainian saltzen zuen kopurua berdindu nahi zuen Fagorrek, eta horretarako Gara-

gartzako lantegia handitu eta langile gehiago hartu beharrra zuen. Lantegi hori 15.000 bat metro koadro handitzea aurrez ikusi zuten arduradunek. Hurrengo urteotarako hazkunde aurreikuspen onak zituen Fagor Elektratresnakek: 2001ean, egosketan %16, garbigailuetan %36 eta ontzi garbigailuetan %25.

## Harrobia epaitegian

(479/10. or.) 2000.1.14

Urtarrilaren 3an San Josepe harrobian izandako leherketa baten ondorioz, harri batzuk Fagor Arrasate eta Fagor Automationeraino iritsi ziren. Fagor Arrasate, Fagor Automation eta Omico enpresek, Umezaintzak eta aparkatuta zeuden 22 autok kalteak izan zituzten Udalak neurri zorrotzagoak hartzea eskatu zion harrobiari, baina kontua urrutiago joan zen: kaltetuek 12 salaketa aurkeztu zituzten Ertzaintzan, eta Bergarako epaitegian atestaturak aurkeztu zuten Ertzaintzak. Horrez gain, Eusko Jaurlaritzako Industria Sailak espediente ireki zion harrobiari.



**Udalatx**  
I n m o b i l i a r i A

- Etxeak, lokalak, ... saldu-erosi
- Tasazioak
- Aholkularitza Fiskala
- Errentamenduak
- Kontratuak

**Etxebizitza berriak eta bigarren eskukoak salgai**

*Gabon zorientsuak izan!*

Maalako Errebala, 27-behea ▪ Tel.: 943 79 59 99

### ■ Herri Onurako Kooperatiba

(481/9. or.) 2000.1.28

Kooperatiba izatetik Herri Onurako Kooperatiba izatera pasa zen San Viator ikastola, bazkideen erabakiz. Besteak beste, onura fiskalak ekarriko lizikioke San Viatorri izaera juridiko berriak. Horrela, Hezibide proiektuko kide San Frantzisko Xabierrek aurreko abenduan hartutako neurriarekin bat egin zuen San Viatorrek.

### ■ Greba orokorra

(482/10. or.) 2000.2.4

Era guztietako jarrerak piztu zituen Euskal Herriarrok ek urtarrilaren 27an deitutako greba orokorrak. Merkataritzan

eta hainbat ikastetxetan erabateko erantzuna jaso zuen; lantegi askotan, ordea, ordubeteko lanuzteak egin zituzten. Gainera, kateaketak eta bi manifestazio egin ziren. *Euskal Herriak du hitza eta erabakia; euskal presoak Euskal Herrira izan zen grebaren leloa.*

### ■ EAren Hiri batzorde berria

(484/12. or.) 2000.2.18

Arrasateko EAK Hiri batzorde berria eratu zuen hiru urterako, Euskal Herriko oinarriak herrian bideratzeko. 11 lagunekin taldea osatu zen, eta horietatik bost berriak ziren. Jose Migel Salaberri izendatu zuten lehendakari.



## MARGA jantzidenda

Iturriotz, 21 • Arrasate • Tel.: 943 71 17 40  
San Pedro 20 • Bergara • Tel.: 943 76 05 37

*Gabonetako eskaintza bereziak*

Urte berri ona izan dezazuela!



# ZABALETA

LYRRINDEGIA / OPARIAK

ESTETIKA ETA SOLARIUM ZERBITZU BERRIA


- Depilazioa: argizari beroaz eta hotzaz
- Depilazio elektrikoa
- Azal garbiketak
- Aurpegiko tratamenduak
- Masajeak
- Eskueta eta hanketako manikura
- Makillajeak



**URTE BERRI ON!**



Maisu Arano, 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 12 32

Ibai-arteren  
bazkide 



# Urte zahar gauean geurean girorik onenean

## ETXERAT TABERNA

ZURGIN KANTOI, 5 • Tel.: 943 79 20 52 • ARRASATE

EUSKAL PRESOAK EUSKAL HERRIRA!



**Aupa 2001!  
Aupa Arrasate!**

**OKORETEGI**

**KAFETEGIA**

Juan Carlos Guerra, 5 behea • ARRASATE • Tel.:943 77 03 62

**DISCO-BAR**



**Disco-Bar Gurelekuk  
2001 URTE ZORIONTSUA  
opa dizue.**


Zarugalde, 17 behea • ARRASATE  
Tel.: 943 79 20 29




Olarte 37. Behea

20500 Arrasate

Tel.: 943 796 792



**2001 URTEA  
ONDO PASATZEKO...**



Iturriotz, 12 • ARRASATE



**Aupa arrasatearrak!  
Aupa 2001!**




## Beasain-Durango onartu zuten

(482/12. or.) 2000.2.4

Arrasateko Udalak eta mankomunitateak egindako eskakizun bati baietza eman zion Foru Aldundiak; Beasain-Durango errepidea egiteko eta Maltzaga-Urbinako bide zaharrean konponketak egiteko eskakizunak, hain zuzen. Bigarrenean lortu zuten udalak eta mankomunitateak aldundiaren baietza. Beasain-Durango errepidearen barruan, Ormaiztegi-Zumarraga zatia lehenengo egitea adostu zen, eta 2000rako 1.400 milioi pezeta egokitu zitzaion zati horri. Hirugarren eskakizun bat ez zen onartu, Arrasatek Aramaio-rainoko saihebidia, alegia.

## EBk Lizarran jarraitzea erabaki zuen

(482/11. or.) 2000.2.4



Arrasateko Ezker Batuak erreferenduma egin zuen eta Lizarra-Garazitik ez ateratzea erabaki zuen. Horrela, Eus-

kadiko EBren Politika batzordeak hartutako erabakitik bereiztu zen Arrasateko ordezkariak; izan ere, Arrasaten bakarrik gertatu zen halakorik, Euskal Herrian. Euskal Herriko militanteen %83k babestu zuten Politika batzordeak hartutako erabakia; hala ere, bozketa horretan %36k bakarrik hartu zuten parte.

Arrasateko ordezkari Joseba Ugaldere esanetan, ez EB-ren batzarrak, ez eta Politika batzordeak ere, ez lukete erabaki hori hartu behar izango.

## Uribetxeberria gose greban

(483/11. or.) 2000.2.11 eta (484/12. or.) 2000.2.18

Bi preso politiko mondrago-etarrek, Josu Uribetxeberriak eta Josu Arkauzek, une latzak bizi izan zituzten, hainbat arrazoi zirela medio. Uribetxeberriak euskal presoak Euskal Herrira ekartzeko eskatuz gose greba hasi zuen.

Sei kilo galdu zuen. Urdaileko minak jota, 15 egunen buruan utzi zuen gose greba.

Bestalde, Josu Arkauzi beste epaiketa bat egin zioten; izan ere, Jose Barrionuevo ministro ohiari eskutitz-bon-

ba bidali izana leporatu zion Baltasar Garzon epaileak.

Dirudienez, Arkauzek Biarritzen zuen etxean aurkitu zuten eskutitza idazteko erabilitako idazmakina.

Arkauzek goitik behera ukatu zituen salaketok.

## aurrez aurre



**G**azteek eta hurrek gehiago erabiltzen dute euskara, baina prozesua oso geldia da. Ez dago formula zientifikorik hau berreskuratzeko eta ekintzak, kanpainak eta antzekoak egiten dira; gero, horren emaitza ebaluatu behar da eta hobetu eta berriro aldatu. Erabilera ez da bakarrik ikastetxeetan bultzatu behar, baita aisialdian ere. Prozesu dinamikoa da. Gure eguneroko erabileran dago erronka nagusia.

**JASONE MENDIZABAL**  
AEDko idazkari ohi  
2000.2.4

### ■ Kirolari mondragoetarrendako saria

(482/24. or.) 2000.2.4

Debagoieneko Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak ematen dituen Challenge sarietako batzuk Arrasatera etorri ziren. Frontenisean, tenisean eta squashean lortu zituzten sariak kirolari mondragoetarrek.



### ■ Olarte kalea, behin betiko itxita

(483/12. or.) 2000.2.11

Maisu Aranotik Gazteluondorainoko gunea oinezkoendako bihurtzeko egitasmoaren barruan, Olarte kalea itxi egin zen eta berriro ez zela zabalduko jakinarazi zen. Lurpeko hodiak sartzen hasi ziren aste horretan.

### ■ Eskola Politeknikoa handitzeko asmoa

(482/12. or.) 2000.2.4

Eskola Politeknikoak Iturriperen atzealdean dauden 70 bat aparkalekuren lur eremua eskatu zion udalari, leku horretan beste eraikin bat egiteko. Eraikin berriarekin batera, beste hainbat aparkaleku egitea erabaki zen, desagertuko zirenak ordezkatzeko.

### ■ Auzo-Lagun, saritua

(483/10. or.) 2000.2.11

Auzo-Lagun kooperatibari ISO agiria eman zion BVQI nazioarteko bulegoak, Zumarragako ospitalean emandako zerbitzu onarengatik. Auzo-Lagunek bazituen horrelako agiriak, baina kasu hori berezia izan zen, Osakidetzarekin batera kudeatzen zuelako ospitaleko sukaldia.

### ■ Garabia, auzoetara

(483/10. or.) 2000.2.11

Garabi zerbitzua herriko auzoetara ere eramatea erabaki zuen udalak, eta ez erdialdera bakarrik, herritar askok eta askok hala eskatu ondoren. Auzoetan gaizki aparkatutako autoek sortzen zituzten arazoak saihesteko hartu zen neurri hori.

### ■ Aurrekontuak %18'2 hazi

(484/17. or.) 2000.2.18

Udalak 3.897.773.282 milioiko aurrekontua onartu zuen 2000. urterako, aurreko urtean baino %18'2 gehiago. Igoera handiena Hirigintza batzordeak izan zuen, 955 milioi pezetarekin. Kulturarako eta Kirolerako aurrekontuak murriztu egin ziren.

### ■ Kanpo zorra, galdegai

(485/13. or.) 2000.2.25

Arrasate eta Aretxabaletako hainbat GKEk kanpaina hasi zuten, Hirugarren Munduko 84 herriri kanpo zorra kentzeko eskatuz. Besteak beste, erreferenduma antolatuta zuten. Gainera, jendearengan horrekiko sentiberatasuna piztu nahi zuten, eta, bide batez, demokrazia zuzenerako bideak zabaldu.



aurrez aurre



Azpiegiturak ez dira industriaren garapeneraren proportzio berean sortu. Gabezia gogorrik dauzkagu; oso egoera kaskarrean gaude. Gu geu azpiegiturak ari gara bereziki bultzatzen (...). Eskoriatzatik Elgoibarreraino dagoen errepidearen egoera ikusita, esan daiteke Afrikan gaudela.

**VICTORIANO GALLASTEGI**

*Debagoieneko Mankomunitateko lehendakaria*  
2000.2.18

## Uribarriko auto-parkea txukundu nahian

(483/11. or.) 2000.2.11



Uribarrin autoak garbitzeko dagoen parkeak kutsadura handia zuela eta, bigarrenkoz garbiketa plangintza ezartzea erabaki zuen udalak. Gainera, erabiltzen zen garbiketa sistema oso garestia zen, eta jendeak ez zituen hango edukiontzia

erabiltzen. Beraz, udalak akordioa sinatu zuen Ur eta Lur enpresarekin. Ur eta Lurrek olio batzeko materiala ipiniko zuen, eta udaleko langileak trebatuko zituen gune hura hobeto zaintzeko. 122.000 pezeta ipini zituen udalak.

## Astore eta Asegarce

(485/11. or.) 2000.2.25

Asegarceko pilotariak jantzik zituen Import-Arrasatek, Astore markako arropak egiten dituen enpresak, alegia. Hala adostu zuten bi enpresek elkarlanerako hitzarmen batean. Lau urtean, gutxienez, 35 pilotari-erendako jantziak egingo zituen Mondragoeko enpresak. Asegarceko kirolariendako ordu arte baino hari arinagoko elastikoak egitea erabaki zuen Import-Arrasatek, mugikortasunik ez kentzeko. Egun horietan Import-Arrasateri Apex 2000 nazioarteko saria eman zioten, umeendako buzo bat diseinatze-agatik.

## Ekologistak

(485./13. or.) 2000.2.25

Parke eolikoak, harrobiak, Laserttasun Handiko Trena eta beste hainbat proiektu erraldoik kezkatuta, talde ekologista sortu zuten hainbat lagunek. Gehienak Mondragoetarrak ziren, baina bailarako beste

hainbat ere bazeuden. Izenik ez zuen taldeak, baina bai helburu zehatzak Debagoieneko ingurumena garapenerako egitasmoek egin zizkieten kalteaz babestea. Ordudanik hainbat protesta ekintza egin dituz-

te proiektu erraldoi horien aurka. Lehenengo ekintza moduan, haize zentralen inguruko hitzaldia antolatu zuten. Elgeako eta Añanako parkeek afektatutako lagunak izan ziren.



Bonaventure • Diesel  
Pepe • Levis

Otalora, z/g Behea ARRASATE  
Tel.: 943 79 11 72

# KYMETZ

Kazuelatxoak,  
ogitartekoak eta  
pintxoak

Maala, 15  
Tel.: 943 79 60 14  
ARRASATE

# Logotipo lehiaketa

**Arrasateko Emakumeen Kontseiluak lanean dihardu 1995etik  
Arrasateko gizon eta emakumeen aukera berdintasunaren alde.**

- Sari nagusia: 100.000 pta.
- Akzesita: 25.000 pta. Arrasatear batek aurkeztutako lan onenarentzat.
- Epea: 2001eko urtarrilaren 31.

Oinarriak Arrasateko udaleko Emakume Sailean.  
Tel.: 943 79 09 00 / 943 79 41 39  
emakume@arrasate-mondragon.net

Antolatzailea:



ARRASATEKO UDALA

Emakume Sails ■

Laguntzailea:



EMAKUNDE



## San Juan de Dios handituz

(486/14. or.) 2000.3.3

San Juan de Dios ospitaleak bi zentro inauguratu zituen martxoaren 4an: Aldi Batera-ko Zentroa eta Eguneko Ospitale Psikogeriatrikoa, hain zuzen. Erietxera joateko beharrik ez zuten gaixoak tratatzeko zabaldutako ziren bi egoitzak. Familia giroa indartuz, diagnostikoak egitea eta kezkei erantzutea zuten helburu.

## Goi-tentsioko kablea

(491/18. or.) 2000.4.7

Musakolatik Aretxabaletako Ederlanerainoko 30 kW-ko kablea zela eta, Mondragoeko Udalak Iberdrolari emandako baimena balio gabetzea gomendatu zuen Arartekoak. Azken honen arabera, udalak ez zion txostena bidali Gipuzkoako Foru Aldundiari, legeak agintzen zuen moduan.

## Zentral eoliko istilutsua

(488/14. or.) 2000.3.17


Elgeako zentral eolikoaren dako ziren sei pala guztiz kiskalita azaldu ziren Arabako Ozaeta inguruan. Kamioi batean zeuden, Elgeara eramanez aurretik hantxe utzita. Gamesa enpresa zen besoen jabea, eta 25 milioi pezetako kalteak izan zituen.

Elgeako lanen jarraipen

batzordea ez zegoen batere pozik zentralak zeraman bidearekin. Izan ere, Elgeako mendilerroko animalia eta landareentzat babesgune zen antzinako harrobi batetik pasa ziren hondeamakinak, jarraipen batzordeak hortik ez pasatzeko beharrezkoak ziren baimen guztiak lortu arren.

## Hauteskundeen emaitzak Arrasaten

(488/10. or.) 2000.3.17



## aurrez aurre



**K**ooperatibismoa kapitalismo modu bat da. Beharbada zer bait justuagoa eta gizatasun handiagoa, baina gizatasun hori langileak motibatzeko erabiltzen da, lan gehiago egin dezaten. Kapitalismoa ere garatzen ari da. Zapaltzaileagoa da, baina, era berean, irudi gizakoiagoa eskaintzen du, langileak gehiago aintzat hartu nahi duena.

### SHARRYN KASMIR

Antropologoa  
2000.3.24

### ■ EAren Hiri batzorde berria

(485/13. or.) 2000.2.25

Arrasateko Eusko Alderdi Jeltzaleak Hiri batzorde berria eratu zuen. Karlos Garate aukeratu zuten lehendakari, Agustin Ugarteren orde.

### ■ Pilar Mondragon aske

(486/14. or.) 2000.3.3



### ■ Larrialdiak bat eginda

(487/14. or.) 2000.3.10

Otsailean ambulatorioko eta ospitaleko larrialdi zerbitzuak batu egin ziren. Horren aurrean, CCOO eta LABek garai batean PAC (Ambulatorioko Larrialdi Zerbitzua) izan zena berreskuratzea eskatu zuten.

### ■ Hauteskundeak UGTn

(488/9. or.) 2000.3.17

Salvador Peña mondragoe-tarra aukeratu zuten Debagoieneko UGTko Metal eta Eraikuntza taldeko idazkari orokorra. 40 bat ordezkari hartu zuen parte baren hauteskundeetan.

### ■ Bilioi bateko salmentak

(488/12. or.) 2000.3.17

1999an bilioi bateko salmentak izan zituela adierazi zuen MCCk. Kopuru horretatik, Industria taldeak 436.000 milioi pezeta fakturatu zituen.

### ■ Diseinu saria Gamei enpresari

(488/12. or.) 2000.3.17

Gamei enpresak makina erremintaren Estatuko



Diseinua saria eskuratu zuen. Bilbon izan zen makina erremintaren nazioarteko azokan.

### ■ 2.000 milioiko fakturazioa

(488/12. or.) 2000.3.17

1999an ia 2.879 milioi pezeta fakturatu zituela adierazi zuen LKS-k. MCCren Ingeniaritza eta Aholkularitza sailetan dago taldea.

### ■ San Josepeko leherketen aurka

(490/12. or.) 2000.3.31

Herriko hainbat enpresak San Josepe harrobiko leherketak debekatu ditzala eskatu zioten udalari, harrobiak beharrezko

segurtasun neurriak hartu arte. Udaleko eta harrobiko ordezkariak bilerak egiten hasi ziren harrobiaren ustiapenarekin lehenbailehen buka zezan eskatzeko.

### ■ Ia 20.000 milioi pezetako fakturazioa

(490/19. or.) 2000.3.31

1999an 18.740 pezetako fakturazioa izan zuela azaldu zuen Fagor Elekratresnak-ek prentsaurrekoan. Aurreko urtean baino %19,3 gehiago fakturatu zuen. Izan ere, Espainian duen negozioa gehitu egin zuen eta bere salmentak %20 igo ziren. Guztira 77.385 pezetako salmentak egin zituen Espainiako Estatuan.



aurrez aurre



obbiyak sortu beharko genituzke, elkarrekin ditugun ideiak aurkitu eta plazaratzeko. Eta hori gizonezkoekin elkarlanean egin beharra dago.

**MAITE BARREÑA**

*Aukera berdintasuneko aditua*  
2000.3.10

## Gaztetxe berria antolatzen

(490/12. or.) 2000.3.31



Gaztetxe berria egiteko pausoak ematen hasi zen udala. Egoitza eraikitzeko proiektua onartu zen, eta lau hilabete eta erdiko epea ezarri zen proiektua idazteko, 8.400.000 pezetako aurrekontuarekin. Baina proiektua aldatu egin zen abenduan.

Erabaki zutenez, lehe-

nengo eta bigarren solairuetan gaztetxea bera egongo da; hau da, taberna eta kontzertuetarako agertokia lehenengo solairuan, eta musika taldeek entseatzeko lekua, bigarrenean. Hirugarrenean, lan-tegiak eta bestelako gelak, eta laugarrenean, Emakumeen Txokoa.

## Aztarnak Olarten

(486/14. or.) 2000.3.3

Olarte kaleko lanekin batera egiten ari ziren arkeologia azterketan horma zati bat aurkitu zuten. Arkeologoek esanetan Mondragoeko harresi zaharraren zatia izan zitekeen.



*Kalitateak mugarik ez.*



## ARGI-PLASTIC

Leihoen fabrikazioa, P.V.C, aluminioa eta poliuretanoa  
Zigorrola, 1 8. Pabeiloia  
Tel.: 943 77 11 30  
ARRASATE





# b e h e r a p e n a k

%30




%30

%30

%30

%30

%30



# u d a l a i t z

A R R A S A T E

erdiko kale 42 • arrasate • tel.: 943 77 00 68



**aurrez aurre**



**A**rrasateko pilotaleku-ko giroa oso polita da. Jendea pilotalekuaren gose zen, eta horrelako zerbaiten beharra zegoen, nahiz eta pilotalekua ez duten oso ongi egin. Eraikin bezala oso polita da, baina ez da erraza hara iristea. Beherago egin behar zuten. Tabernak ere behean behar zuten, jendea horrela egunero joango zen eta.

**HILARIO ARANSAEZ**  
Asegarceko artekaria  
2000.4.14

**AUKEA sariak 1999**

(492/29. or.) 2000.4.14

Ane Lopez de Bergarak, San Andres xake taldeak eta Rosi Sarraoak jaso zituzten AUKEA sariak. Lopez de Bergara Espainiako eta Europako txapel-duna izan zen hainbat aldiz igeriketean. Sarraoak hegats-

igeriketa egin zuen eta 1980-85 artean Espainiako txapel-duna izan zen.

San Andres xake taldeak aurreko urtean egindako ibilbideagatik jaso zuen saria, 28 urte bete zituen urte berean.



Ane Lopez de Bergara.



Rosi Sarraoa.

**8.000 lagun Arantzazura**

(493/9. or.) 2000.4.19



**Goi-tentsioko kablea**

(491/18. or.) 2000.4.7

Musakolatik Aretxabaletako Ederlanerainoko 30 kW-ko kablea zela eta, Mondragoeko Udalak Iberdrolari emandako baimena baliogabetzea gomendatu zuen Arartekoak. Azken honen arabera, udalak ez zion txostena bidali Gipuzkoako Foru Aldundiari, legeak agintzen zuen moduan.

**Udal irratia Arkora**

(491/35. or.) 2000.4.7

Arrasateko Udalak eta ARKOK apirilaren 5ean sinatu zuten aurrerantzean ARKOK kudeatuko zuela Arrasate Irratia. Hitzarmena hiru urterako sinatu zuten. Xabier Zubizarreta alkateak eta Joxemari Muxika Arrasate Komunikabideak elkarteak kideak sinatu zuten hitzarmena.

Horrez gain, irratian hiru milioi pezetako inbertsioa egingo zela ere sinatu zen teknologia berrizteko.

■ **Mondragoeko kooperatibak sarituta**  
(491/19. or.) 2000.4.7

Gipuzkoako Bazkondeak Industria sariak banatu zituen zortzigarren urtez, eta Fagor Elektresnak-ek Espresa esportatzaileen saria jaso zuen.

Bestalde, mendeko enpresari onenak ere saritu zituzten eta bi mondagoetar egon ziren tartean: Jose Maria Ormaetxeari etxetresna elektrikoen merkaturan izan duen garrantziagatik eman zioten; Jose Mari Arizmendi-rietiari Gipuzkoako industria-

ren garapenean izan zuen eraginagatik eman zioten.

■ **Mondragoetarra hirugarren**  
(491/10. or.) 2000.4.7

Euskadiko V. Sagilata lehiaketako bigarren finalerdian Eneke Perez arrasatearra hirugarren geldituz en. Hogei lagun ari ziren txapelketan.

■ **ISO 14001 JMARI**  
(492/10. or.) 2000.4.14

JMA enpresak ingurumenaren ISO 14001 saria eskuratu zuen, hondakin gutxiago sortuz produzitzeagatik.

**OSORIK  
PUB**  
Ignazio Zuluaga, 4  
ARRASATE

**ALDAPE**  
Taberna  
Especialitatea: menua-karta  
Iturriotz, 41  
Tel.: 943 79 70 41  
ARRASATE



*Sili Sili*  
Martxa eta estilo handiko arropa  
Iturriotz, 9 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 81 82



## Harrobiak mugak gainditzen

(492/14. or.) 2000.4.14

Herriko harrobiak zelan dau- den jakiteko azterketa egin zuen udalak. Kanpanzar eta San Josepe harrobiak aztertu ziren; izan ere, harrobiei egiten zaien jarraipenean ikusi zenez, harro- bien ustiapenean jarritako mugak gainditzekotan zebiltzan. Udalak egindako txoste- nean ikusi zen batak zein bes- teak gainditu egin dutela eza- rritako lan-esparrua eta neurriak hartzea erabaki zuen.

Kanpanzar harrobiari dagokionez, 1993. urtean harrobiaren lana legeztatu zenean ezarritako muga gain- ditu egin zuen, altueran. Ondor- ioz, espedienteak irekitzea era- baki zuen udalak.

Bestalde, Udalatxera igo- zteko antzinako bide bat esta- lita geratu zen harrobiaren lanen ondorioz. Hori berres- kuratu egin behar zuela ere jakinarazi zion udalak Kan- panzar harrobiari. 2015. urte- an utzi beharko dio esplota- zioari harrobi horrek eta ondo- ren, berrskuratzeko lanei ekin- go zaie. Inguru hori ere berres- kuratu egingo da.

## Hies Berri elkarteak ateak zabaldu zituen

(493/9. or.) 2000.4.19



HIES Ekimena zenaren lekua hartu zuen Hies Berrik.

Apirilaren 18an aurkeztu zen Hies Berri taldea prentsau- rrekoan. Ordura arte Hiesak eragindako ondorioak saihe- teko eta gutxitzeko lanean ibili direnei, horretan segi- tzeko deialdia egin zien Hies Berri taldeak. Desagertu den Hies Ekimena elkarteak hasi- tako lana jarraitu nahi dute tal- de berriko kideek.

Batez ere, aholkularitza eta hezkuntza lanak egingo dituzte. Espezialisten esane-

tan, Hiesaren aurkako neu- rririk egokiena informazio- prebentzioa izanik, horixe da talde berri horrek egingo due- na: ikastetxeetan, gaztetxee- tan eta, oro har, gizartean, beharrezkoa den informazioa eman. Baina, gaixoak eta euren senideei laguntzen segi- tuko dutela ere adierazi zuten Hies Berri taldeko kideek.

Hies Berriren egoitza Hies Ekimena taldeak zuen leku berean dago.

## aurrez aurre



S ekula ez da berandu dantzan ikasteko. Aukera mordo- dago dantzaren espa- rruan: mugimendua, argiak, musika... ez zaude zu bakarrik. Behar den gauza bakarra da musika sentitzea eta dantzarekin bat etortzea. Hortik aurrera, bakoitzak bere ahalmenean arabera eman dezake. Gorputz bakoitza mundu bat da eta guztiok berdin ikasten dugun arren, bakoitzak mugitzeko era propioa aurkitu behar du.

**SAIOA IBAÑEZ**

Dantzaria  
2000.4.19

943 344 494

[www.deika.com](http://www.deika.com)

- TELEF. FINKOA
- TELEF. MUGIKORRA
- AHOLKULARITZA INFORMATIKOA
- INTERNET
- TELEFONOGUNEAK

**DEIKA**  
telekom

ENPRESA ETA PARTIKULARREI ZUZENDUTAKO ZERBITZUA

Eta orain Arrasaten ere bai:

**ARRASATE**  
Kontzeziño, 12

ERRENTERIA  
Morrongilleta, 1  
M. Etxeberria, 1

BEASAIN  
Nafarroa Hirib., 25

URRETXU  
Areizaga, 1

BANATZAILE OFIZIALA: **Euskaltel**

Gizonak Emakumeak

LYKO Jantziak

Zorionak eta urte berri on!

Erdiko kale, 32 • ARRASATE • Tel.: 943 79 16 12

Ibai-arteren bazkide **ibai-arte**



aurrez aurre



**M**ondragoen oso zaila da sozialista izatea. Alderdi sozialistak bere estatutu eta kongresuetan oso argi agertu ditu beti asmoak, ideiak... baina gero, hori praktikan ez da betetzen. Adibidez: gu, PSE-EEren estatutuen arabera, berez Euskadizaleak gara, baina gero hori ez da alderdiaren jardunean islatzen”.

**IGNACIO JIMENO**

*PSE-EEko zinegotzi ohia*  
2000.5.12

**PPren kontrako erasoak**

(494/10. or.) 2000.5.5



Apirilaren amaiera aldean Jose Ramos Prieto PPko zinegotziaren etxearen aurkako erasoak egon ziren herrian. Su hartzeko likidoa bota zuten leiho batera, eta ondoren, su eman zioten. Erasoak ez zuten bestelako kalterik eragin, leihoa itxita zegoelako. Familiak berak emendatu zuen sua. Horrez gain, etxearen horman

pintadak agertu ziren. Erasoaren bezperan bai PPko zinegotziak eta baita herriko lau zinegotzi sozialistak ere mehatxutxutun bana jaso zuten.

EHK izan ezik, gainontzeko alderdi guztiek gaitzetsi zuten erasoa. Euskal Herriak bizi duen egoera istilutsuaren barruan kokatu zituen erasoak EHK.

**Arrasate Irratia, berriro uhinetan**

(494/15. or.) 2000.5.12

Bi hilabeteen isilik egon eta gero, maiatzean Arrasate Irratiak berriro egin zuen salto uhinetara. Aurpegi berriarekin; izan ere, ARKOk hartu zuen irratia kudeaketaren ardurara, eta horrekin batera aldatketak egin ziren irratiaren besteak beste, lantaldea indartu zen eta emisio orduak bikoiztu, goiz osoko programazioa emanez. Albistegiak indartzeko ahalegin berezia ere egin zen, eta ohiko kolaboratzaileez gain, berriak ere sartu ziren. Alazne Ostolazak hartu zuen albistegietako ardurara eta Aitziber Aranburuzabalak, berri, goizeko programazioarena.

**GOITB sortu zen**

(496/17. or.) 2000.5.19

Maiatzaren 22an sortu zen Goiena Telebista, bailarako telebista berria, eta agur esan genion Arrasate Telebistari. Hasieran, Leintz aldean bakarririk ikusi zen, hortaz, 35.000 bat lagunek izan zuten horre-

tarako aukera. Urrian, berriz, saio berriak emititzen hasi ziren.

Horretarako, lantaldea osatu zen bailarako herrietako berriemaileekin. Emisio zentro nagusia Arrasaten egonda, hiru ordezkariak ere

antolatu ziren GOITBrako: Aretxabaletakoa, Oñatikoa eta Bergarakoa, hain zuten. Eta unitate ibiltaria ere estreinatu zen, bailarako edozein gertakari edo ekitaldi zuzenean jasotzeko.

**Karrera berria**

(494/10. or.) 2000.5.5

Eskoriatzako Humanitate Fakultatean karrera berri bat abian jarriko zutela iragarri zuten: Hizkuntzen Psikopedagogia, hain zuten. Bigarren zikloko ikasleei zuzenduta, hizkuntzen aniztasunak Euskal Herriko eskolan eta gizartearen eragiten dituen egoerei erantzun egokia ematen jakingo duten profesionalak prestatzea da helburua.

**Hiru arrasatear gose greban**

(494/11. or.) 2000.5.5

Apirilean hasita, maiatzean gose greban jarraitzen zuten Mondragoeko Goio Etxeak,

Kepa Urrea eta Jose Inazio Gaztañagak. Oinarrizko eskubideak errespetatzea eskatzen zuten; hau da, zigorraren 3/4ak beteta dituztenak eta gaixorik daudenak aske uztea, eta zigorra bete behar dutenek etxetik gertuen dagoen kartzela batean betetzea.

**Berriro larrialdiak betetzen**

(494/11. or.) 2000.5.5

Gipuzkoako Gurutze Gorriak larrialdi zerbitzuarekin berriro hastea erabaki zuen. Horrela, San Prudentzioko Gurutze Gorriak ambulanzia bat gehiago ipini zuten larrialdietarako.

Gurutze Gorriak 1998. urtean utzi zion zerbitzua eskaintzeari, diru arazoengatik. Denbora horretan DYAK bete zituen larrialdi egoerak.

**Arrazakeriaren aurka**

(494/24. or.) 2000.5.12

Arrazakeria eta xenofobiaren aurkako hilabetea izan zen maiatza. San Andres, Uribarri eta Musakola auzoetako gazte txokoei, Udaleko Kultura



Sailarekin eta arrazakeriaren aurka lan egiten duten hainbat erakunderekin elkarlanean, egitarau bete-betea prestatu zuten hil osorako.

**Alkoholzale Anonimoek 25 urte**

(495/10. or.) 2000.5.12

Arrasateko Alkoholzale Anonimoen taldeak 25 urte bete zituen. Urteurrena ospatzeko hitzaldia egin zuten. Baina, horrez gain, berritasun garrantzitsu bat ere izan zuten orduan: abadetxean egiten zituzten bilerak, baina udalak emandako lokal propioa eskuratu zuten, Arrasate Pasealekuan.

**Ikerlanen webgunea**

(495/10. or.) 2000.5.12

Ikerlanek goitik behera berritu zuen Interneten duen webgunea. Diseinu berria eta eduki osoagoak eskaintzen hasi zen. Diseinu lanak Mondragoeko Danka enpresak egin zizkion. Gaztelania bakarrik erabili zezakeen, baina euskarazkoa ere prestatzen ari ziren. Helbidea: www.ikerlan.es



# Kenci bigarren mailara

(494/22. or.) 2000.5.5



Iaz atarian geratu eta gero, Kenci Arrasatek bigarren mailara igotzea lortu zuen, Duran-gon Tabirakori 88 eta 89 irabazi ondoren.

Jon Basurko lehendakari

eta jokalariki hauxe adierazi zuen: «Hasierako helburua lortu dugu. Lander Errastiren taktika buruz buruko defentsa estuan eta eraso bizi eta azkarretan oinarritu da. Arrasatek

egin du talde guztien artean joko ikusgarrienetakoa. Etxean erakutsitako sendotasunak eta kanpoan irabazitako norgehiagoek hirugarren tokiraino eramán gaituzte».

## Elgea, abian

(496/11. or.) 2000.5.19

31 aerosorgailu ipinita zeuden eta 20 lanean hasi ziren, 500 orduko epe-froga betetzeko. Beraz, Elgea estreinatu zela esan genezake. Azken ukituak emanda, ekainean bukatu zituzten lan gehienak.

## EAJ eta EA, bakoitza bere aldetik

(496/11. or.) 2000.5.19

Urtebetez batera egon ondoren, EAJk eta EAK koalizioa desegitea erabaki zuten. Jose Mari Loitik (EAJ) eta Jose Mari Urizar 'Ametzuk' adierazi zigutenez, bi alderdien arteko koalizioa ekaineko

hauteskundeetarako izan zen, eta alderdi bakoitzaren nortasuna gordetze aldera, bakoitzak bere bidea egitea erabaki zuen. Ondorioz, udaleko batzorde informatiboetarako izendapen berriak egin ziren.

## aurrez aurre



**E**gia da, markak hautsi nahian, mendizaleen artean gezur asko esaten direla. Porru galantak sartzen dituzte batzuek. Ez dago aurregailurrik, eta ezta tontor zentralik ere. Tontorra tontorra da, punturik altuena, eta puntu honetara heltzen ez denak ez du tontorrik egin, eta kitto!

### FELIX ETA ALBERTO ÑURRATEGI

(mendizaleak)  
(2000.5.26)

### ■ Presoekiko elkartasuna

(496/12. or.) 2000.5.19

ELA sindikatuak presoek eskubideekiko duen jarrera epela salatzeke, sindikatuaren egoitzaren ateari kateatu zitzaizkien lau lagun. Beste hiru pankarta batekin egin ziren kanpoaldean. Guztiak biluzik agertu ziren, manta batez estalirik.

### ■ Udaleko Haur Eskola

(496/12. or.) 2000.5.19

Udaleko Haur Eskola sortzea erabaki zuen udalbatzarrek. Gainerako udal haur eskolek diru laguntza gehiago lortzen dituztelako egin zen proposamena.

### ■ Lan-istripua

(496/12. or.) 2000.5.19

Lan-istripu larria izan zen Bedoñan. Ismael F.G., 48 urteko langilea, argi-zutoin batetik jausi zen. Eskualde Ospitalera eramán zuten, mugitzeko eta arnasa hartzeko arazoekin. Azkenean, ordea, ez zitzaion ezer larria gertatu.

### ■ Urrezko Astokiloa

(496/13. or.) 2000.5.19

San Isidroak ere izaten dira maiatzean, eta auzotarren bati Urrezko Astokiloa emateko ohitura dago. Aurtan, Juan Inazio Biaiñek eskuratu du astokiloa, musikolarren amets bat betetzearen: Arruenako zelaian astoa ipintzea, hain zuzen.

### ■ Urrea eta zilarra Mondragoera

(496/25. or.) 2000.5.19

Urrezko bi domina eta zilarrezko beste bat irabazi zituzten Arrasate Kirolak Atletiko Taldeko alebinek, Ordizian jokaturako Gipuzkoako txapelketan. Lander Errastik (jauzia) eta Ander Trojaolak (hesi-lasterketa) urrezko domina bana ekarri zuten. Zilarrezko domina, berriz, laukote batek irabazi zuen: 4x60 lasterketan Ibai Martin, Lander Errasti, Ander Trojaola eta Adrian Ramirez aritu ziren eta urrea lortzetik zazpi ehunekora geratu ziren.

### ■ Galarta Interneten

(496/28. or.) 2000.5.19

Julio Galarta margolariaren lanak jarri zituen interneten Euskonews&Media webgunean. Bere aldizkariaren 78. zenbakian margolari arrasatearraren lanak jarri zituen ikusgai.

### ■ Sexologia Zerbitzua

(497/10. or.) 2000.5.26

Azken hiru urteotan emandako eskaintzari eutsi eta zerbitzu zabalagoa eskainiko du Udal Sexologia Bulegoak. Astean bi ordu gehiago eta jendearen parte hartze zabalagoa eskainiko dituzte, besteak beste.

### ■ Bilioi bat salmentatan

(497/11. or.) 2000.5.26

Bilioi bat pezetako salmenta kopurua gainditu zuen MCCk lehenengo aldiz. Industria eta Banaketa Taldeen salmentak eta Euskadiko Kutzaren Baliabide Bitartekatuak batuta atera zen aipaturako diru kopurua.



**aurrez aurre**



**L**antresna erabilgarria izango da Euskaltzaindiaren hiztegi batua, gehiegizko erabilera eginez euskalkiak baztertzen ez badira. (...) Hori guztia kazetari jardunean txertatuz, bereiztu egin beharko liriteke idatzizko eta ikus-entzunezko hedabideak. Baita hedabide nazionalak eta herri-hedabideak ere. Edo bekatu da kotxe batek kanposantuko horma jo ondoren hildako bat izan dela esatea Arrasaten?

**MAIDER OSA**  
GOITBko kazetaria  
2000.5.26

## 400 lanpostu gehiago

(495/12. or.) 2000.5.12



Aurreikusten zena baino ia 400 lanpostu berri gehiago sortu zituen Fagor Elektresnak 1999. urtean. Hori jakinarazi zuten Batzar Orokorrean. Era berean, beste 461 langile bazkide egin zituztela ere adierazi zuten.

Pasa den urteko emaitza

ekonomikoak ere jakinarazi ziren: 4.670 milioi pezetako errentagarritasuna lortu zuen iaz Fagorrek. Izan ere, 118.750.000 milioi pezetako salmentak izan zituen barne eta kanpo-merkatuan. Barne merkatua %20 igo zen eta kanpo-merkatua, berriz, %17.

## Etxaluzetik Zaldusperaino

(495/13. or.) 2000.5.12

Udaleko Hirigintza Sailak Cerrajeraren urbanizazioaren berrantolaketa lantzen ibili zen eta idatzitako txostena jendaurrean jarri zuen. Etxaluzetik Zaldusperainoko zatia aztertu zuen Hirigintza Sailak txostenean. Guztira, 149.785 m<sup>2</sup>. Lurzati horretan 312 etxebizitza eraikiko zirela adiera-

zi zuten. Urtarrilean jakinarazi genizuen, Cerrajerako urbanizazio lanen lehenengo zatia hasita dago (San Andresetik Cerrajerako erlojuraino heltzen dena). Erlojutik aurrerako zatian, berriz, hasieran zeuden asmoekin konparatuz, aldaketa dezente aurkeztu zituen Hirigintzak.

## Portugaldarrak Antoñara

(495/13. or.) 2000.5.12

Ospitale inguruan lau urte igaro ondoren Antoñan jarri zieten bizilekua Zalduspeko bi familiei. Aurrefabrikatutako sei eraikin prestatu zituen udalak. Familia bakoitzari bi eraikin eman zizkion: bata bainugela eta bestea egongela. Eraikin bakoitza 18 m koardrokoa.

## Ur-salbamendurako txakurra

(495/29. or.) 2000.5.12

Boira Taldeak Terranova txakurren Espainiako Ur-Salbamenduko txapelketa antolatu zuen apirilaren 30 eta maiatzaren 1ean Valentzian.

Arrasaten horrelako txakur bat dago: Lur dauka izena eta txuri-beltza da. Orain bi urte eta erdi ekarri zuten Madriletik. Dagoeneko, uretako salbamenduko hirugarren maila gainditu du (Valentzian) eta laugarrenarako prestatzen ari ziren Mertxe Valdivieso eta Josu Beitia bere jabeak.

### ISO 14001, Coprecirentzat

(497/11. or.) 2000.5.26

Ingurumena zaintzen eta errespetatzen duelako jaso zuen ISO 14001 ziurtagiria Aretxabaletako enpresak. Izan ere, azken urteetan lan handia egin du Coprecik kutsadura gutxitzeko.



### Praktiker

(497/11. or.) 2000.5.26

Mondragon Unibertsitatek Praktiker izeneko egitasmoa sortu zuen, enpresatan giza baloreak sustatzeko. Enpresei giza alderdian sakontzen laguntzeko tresnak aztertu eta proposatu ditu Praktikerrek.

### Ikerlan, pozik

(497/13. or.) 2000.5.26

1.817 milioi pezeta irabazi zuen Ikerlanek iaz, aurreko urtean baino %11 gehiago. Irabazien artean, ikerkuntzatik eta garapenetik lortutako 1.152 milioiak nabarmendu ziren.



**M**  
**MEMESA**  
Industria hornidurak  
Tel. 943 71 24 25



**Elizondo**  
kafetegia



Garagartza auzoa • ARRASATE • TEL.: 943 79 15 99





# Udalaitz, S.L.

Musakola auzoa, z/g • ARRASATE  
Tel.: 943 79 18 80 / 943 79 21 25



Zorionak eta  
urte berri on!



- Garageko atek
- Burdinazko pertsianak
- Automatismoak
- Urrutiko aginte tresnak eta hauen mota guztietako kopiak
- Oinezkoen ateentzako sistema automatikoak
- Konponketak

Kataide industrialdea, 18 • Tel.: 943 79 10 20 • Faxe: 943 79 08 17  
110 Postakutxa • ARRASATE

**JUBAR**®  
ATEAK, S.L.




# urteko zenbakiak banan-banan



479

- **Gaia:** Txikilandiak 10 urte
- **Elkarrizketa:** Naiara Gorroño, ekoizlea
- **Ikuspegia:** Mikel Irizar
- **Euren ikuspuntutik:** Pepa Bojo
- **Kirol gaia:** Bizkorrek txapeldun
- **Kultura gaia:** Arrasate lehiaketak 98



481

- **Gaia:** Txotx!
- **Elkarrizketa:** Eva Egizabal, "Gizakien Lurra" ko ordezkaria
- **Ikuspegia:** Iker Ezpeleta
- **Euren ikuspuntutik:** Jose Ramon Zubizarreta
- **Orain eta hemen:** Industria museoa
- **Kirolak:** Judo txapelketa



480

- **Gaia:** Dolaratarrak, 20 urte txalo artean
- **Elkarrizketa:** Ainhoa Guenaga, udal idazkaria
- **Ikuspegia:** J.M. Velez de Mendizabal
- **Euren ikuspuntutik:** Eva Egizabal
- **Orain eta hemen:** Zerrajerako etxeak
- **Kultura elkarrizketa:** Abaddom taldea



482

- **Gaia:** Urkulu bizi-bizi
- **Elkarrizketa:** Jasone Mendizabal, AEDko idazkari ohia
- **Ikuspegia:** Karmele Perez
- **Orain eta hemen:** Beasain-Durango aurrera
- **Kirolak:** Uarkapeko jaialdiak
- **Kultura elkarrizketa:** Manolo Quevedo





483

- **Gaia:** ATBk 10 urte
- **Elkarrizketa:** Anton Garate, Santa Agedako kantariak
- **Ikuspegia:** Mikel Irizar
- **Euren ikuspuntutik:** Jon Aldanondo
- **Orain eta hemen:** Gida 2000
- **Kultura elkarrizketa:** Koldo Zuazo



488

- **Gaia:** Esperientzia trukatzeko bisitan
- **Elkarrizketa:** Rafael Fernandez, enpresari eta margolaria
- **Ikuspegia:** Iker Ezpeleta
- **Euren ikuspuntutik:** Ibon Antero
- **Orain eta hemen:** Elgea
- **Kultura elkarrizketa:** Mikel Argote



484

- **Gaia:** Udal aurrekontuak: 3.899.855.389 pta.
- **Elkarrizketa:** V. Gallastegi, mankomunitateko lehendakaria
- **Ikuspegia:** Iker Ezpeleta
- **Euren ikuspuntutik:** Koldo Zuazo
- **Orain eta hemen:** Salaketak Elgean
- **Kultura elkarrizketa:** Numen Taldea



489

- **Gaia:** Musika taldeak lokal beharrean
- **Elkarrizketa:** Sharryn Kashmir, antropologoa
- **Ikuspegia:** Mikel Irizar
- **Euren ikuspuntutik:** Mikel Olabe
- **Orain eta hemen:** Gaztetxea
- **Kultura elkarrizketa:** Jesus L. Zulueta



485

- **Gaia:** Olé! Al-Andalus, 10 urte
- **Elkarrizketa:** Jose Luis Armendia, Arrasate Yoga Elkarteak
- **Ikuspegia:** Mikel Irizar
- **Euren ikuspuntutik:** Lorea Aranburu
- **Kirolak:** Gimnasia erritmikoa Uarkapen
- **Kultura gaia:** Haratuzteak



490

- **Gaia:** Bagatuz! Adimen urriko mondragoetarren lanera
- **Elkarrizketa:** Joserra Agirreurreta, Gatzagako alkatea
- **Ikuspegia:** Karmele Perez
- **Euren ikuspuntutik:** Juan Jose Goenaga
- **Kirolak:** Udaberriko txapeldunak
- **Kultura elkarrizketa:** Aitor Elizaran



486

- **Gaia:** Nekazaritza ekologikoa
- **Elkarrizketa:** Jesus Mari Egidazu eta Crisanto Margusino
- **Ikuspegia:** Karmele Perez
- **Euren ikuspuntutik:** Malen Errasti
- **Kultura gaia:** Miren Etxeberria




491

- **Gaia:** Zaborra bai, eskerririk asko
- **Elkarrizketa:** Itsaso Mallaviabarrena, saskibaloijokalaria
- **Ikuspegia:** Nekane San Miguel
- **Euren ikuspuntutik:** Jose Ramon Elorza
- **Orain eta hemen:** Goiena
- **Kultura elkarrizketa:** Luis Elberdin



487


- **Gaia:** DYA. Larrialdiak, SOS.
- **Elkarrizketa:** Mikel Irizar, Goiengo bateratzailea
- **Ikuspegia:** Nekane San Miguel
- **Euren ikuspuntutik:** Jose Mari Astigarraga
- **Orain eta hemen:** Herri kontsulta
- **Kultura elkarrizketa:** Maite Barreña



492

- **Gaia:** Euskal dantzak biziberritu nahian
- **Elkarrizketa:** Hilarioransaez, Asegarceko artekaria
- **Ikuspegia:** Iker Ezpeleta
- **Euren ikuspuntutik:** Pedro Lasagabaster
- **Kirolak:** Aukea sariak
- **Kultura elkarrizketa:** Daniel Laskurain





493

- **Gaia:** San Andresek Xake-mate
- **Elkarrizketa:** Saioa Ibañez, dantzaria
- **Ikuspegia:** Mikel Irizar
- **Euren ikuspuntutik:** Rafael Gomez
- **Orain eta hemen:** San Viator Erreta
- **Kultura elkarrizketa:** Enrike Perez



498

- **Gaia:** Jakintzara ikuspegia. Humanitateko Fakultatea
- **Elkarrizketa:** Andoni Iñarra, luthieria
- **Ikuspegia:** Kamele Perez
- **Euren ikuspuntutik:** Eugenio Iturriotz
- **Kirolak:** Errugbi topaketak
- **Kultura elkarrizketa:** Kañeria 13



494

- **Gaia:** Arrasate Irratia, 107.7an zuen zain
- **Elkarrizketa:** Maisabel Isasmendi, Atzegi
- **Ikuspegia:** Kamele Perez
- **Euren ikuspuntutik:** Ugutz Garitaonaindia
- **Kirolak:** S. Isidro txirindulari saria
- **Kultura elkarrizketa:** Joxemari Muxika



499

- **Gaia:** Agur eta ohore. Azken ikazkinak
- **Elkarrizketa:** Jose Anjel Atxon, historialaria
- **Ikuspegia:** Nekane San Miguel
- **Euren ikuspuntutik:** Julia Monge
- **Kirolak:** Saskibaloitxapelketa
- **Kultura elkarrizketa:** Getxoko antzerki eskola



495

- **Gaia:** Arrasateko harrobia
- **Elkarrizketa:** Ignacio Jimeno, PSE-Eeko zinegotzi ohia
- **Ikuspegia:** Nekane San Miguel
- **Euren ikuspuntutik:** Juan Ramon Miguel
- **Kirola:** Lur, uretako salbamendu txakurra
- **Kultura:** Corazon de Encina



500

- **499 ARRASATEN PRESSEN** agitaratutako albisteen errepasoa
- ARRASATE PRESSEKO kazetari ohiak
- ARRASATE PRESSEKO publizista ohiak




496

- **Gaia:** GOITB. Bailarako telebista astelehenetik aurrera
- **Elkarrizketa:** Balen Tramon, Putz aldizkaria
- **Ikuspegia:** Iker Ezeleta
- **Euren ikuspuntutik:** Jaione Guezmes
- **Kirola:** Arrasate-Oñati
- **Kultura elkarrizketa:** Andoni Mujika




501

- **Asteko gaia:** Udako solstizioa
- **Euren ikuspuntutik:** Harkaitz Rodriguez
- **Orain eta hemen:** Giza bazterketaren aurka
- **Kirolak:** Retegi II. Uarkapen
- **Kultura gaia:** SJBren liburua
- **Berezia:** San Joan jaiak



497

- **Gaia:** Asmoz beteta. Felix eta Alberto Iñurrategi
- **Asteko gaia:** Hitzegi batua, euskara batua eraikitzen
- **Ikuspegia:** Mikel Irizar
- **Euren ikuspuntutik:** Beñat Arzadun
- **Eskola kirola:** Azken jaiak
- **Kultura elkarrizketa:** Maiatza dantzan



502


- **Gaia:** Hurrengora arte San Joan
- **Elkarrizketa:** Seberiano Aiestui, misiolaria
- **Ikuspegia:** Kamele Perez
- **Euren ikuspuntutik:** Solidarioak gose grebalariek
- **Erdiko orrietan:** Sanjoanak argazkitan
- **Kultura:** Urruzuno saridunak






503

- **Gaia:** Udalekuetan murgilduta
- **Elkarrizketa:** Imanol Galfarsoro, Guidhall Unibertsitatea
- **Ikuspegia:** Iker Ezpeleta
- **Euren ikuspuntutik:** Jabier Ibañez
- **Kirolak:** Mondraren batzarra
- **Kultura elkarrizketa:** Offset taldea



508

- **Gaia:** Yoga: errotutako ohitura
- **Elkarrizketa:** J.J. Arrieta, Euskadiko Kutxako Zuzendaria
- **Ikuspegia:** Nekane San Miguel
- **Euren ikuspuntutik:** Denontzat
- **Kirol elkarrizketa:** Raul Leiba
- **Kultura elkarrizketa:** Idoia Agirre




504

- **Gaia:** Gurpilen gainean
- **Elkarrizketa:** M. Amenabar, Gipuzkoako pilota federazioko lehendakaria
- **Ikuspegia:** Nekane San Miguel
- **Euren ikuspuntutik:** Leire Bergara
- **Kirolak:** Donosti eta Gasteiz Cup
- **Kultura gaia:** AEDren auzolandegiak



509

- **Gaia:** Punkiak, zinemagileak eta grabaketa estudioak
- **Elkarrizketa:** Manu Gomez, Zinema zuzendaria
- **Ikuspegia:** Mikel Irizar
- **Gure enpresak:** Leintz Garraioak
- **Kirolak:** Mondra Futbol Taldea
- **Kultura:** Holidays in the sun



505

- **Gaia:** Udan noraezean
- **Elkarrizketa:** J.M. Barrutiabengoa, Aloñako entrenatzaile ohia
- **Ikuspegia:** Mikel Irizar
- **Euren ikuspuntutik:** Onintza Lopez de Munain
- **Kirolak:** Musakolako kiroldegia
- **Kultura:** J.M. Velez de Mendizabal



510

- **Gaia:** GOITB. Goienara iristeko prest
- **Elkarrizketa:** Eduarne Etxabe, Afagino lehendakaria
- **Ikuspegia:** Karmele Perez
- **Auzoz auzo:** Garagartzako jaiak
- **Kirolak:** Motokros txapelketa
- **Kultura gaia:** Julian Gayarre txapelketa



506

- **Gaia:** Adiorik ez
- **Ikuspegia:** Nekane San Miguel
- **Orain eta hemen:** Herri autobusa
- **Kirolak:** Arrasate Hiria
- **Kultura elkarrizketa:** Beatriz Arzamendi



511

- **Gaia:** Arrasate Irratia gala jantziekin
- **Berezia:** Maritxuren semeak
- **Ikuspegia:** Iker Ezpeleta
- **Orain eta hemen:** Roneo
- **Kirolak:** Arrasate Almen eskubaloit taldea
- **Kultura:** Arrasate lehiaketak



507

- **Gaia:** Hamar urte gure artean. Arrasateko Gureak tailerraren urteurrena
- **Elkarrizketa:** Goio Etxabe, preso ohia
- **Ikuspegia:** Iker Ezpeleta
- **Orain eta hemen:** Danka eta Ulma
- **Kirolak:** I. Etxebarria eta L. Rekarte
- **Kultura gaia:** Bertso eskola



512

- **Gaia:** Jainkoari erreguz, beharri mailuz
- **Elkarrizketa:** Luis Miguel Saenz, ELAko ordezkaria
- **Ikuspegia:** Nekane San Miguel
- **Orain eta hemen:** Osoko bilkura berezia
- **Kirolak:** Kenci Arrasate taldea
- **Kultura elkarrizketa:** Jon Andueza





513

- **Gaia:** Inoiz ez da berandu, nahi izanez gero
- **Elkarrizketa:** Sebastian Uribebebarria, misiolaria
- **Ikuspegia:** Mikel Irizar
- **Euren ikuspuntutik:** Amaia Larrañaga
- **Eskola kirola:** Hasi da denboraldia
- **Kultura:** Ion Pousa



518

- **Gaia:** Goienkaria, Debagoieneko astekaria
- **Elkarrizketa:** Xabier Sarasua, ABK-ko kidea
- **Euren ikuspuntutik:** Gaizka Eraña
- **Kirolak:** Pilota jaialdia
- **Kultura gaia:** Badihardugu



514

- **Gaia:** Azaroaren lehena
- **Elkarrizketa:** Isabel Quintana prokuradorea
- **Ikuspegia:** Karmele Perez
- **Euren ikuspuntutik:** Jaione Guezmes
- **Kirola:** San Andres Xake Taldea
- **Kultura gaia:** Veronica Rios



519

- **Gaia:** Kooperatibismoa Kolonbiari laguntzeko
- **Orain eta hemen:** AEK eta udala elkarlanean
- **Zaldibar:** 4. jardunaldia
- **Kultura:** Marije Apodaka
- **Irratia:** Informazioa nagusi



515

- **Gaia:** Elkartasunerako erosketak
- **Elkarrizketa:** Pedro Guridi
- **Ikuspegia:** Iker Ezpeleta
- **Euren ikuspuntutik:** Jabier Gorroñogoitia
- **Kirola:** Errugby Taldea
- **Kultura:** Psicosis Gonsales



520

- **Elkarrizketa:** Lourdes Viguera, jostuna
- **Kirola:** Triatloi txapelketa Arrasaten
- **Kultura gaia:** Musikaren hiriburua. Akordeoi Lehiaketak jokatu dira Mondragoen
- **Kultura elkarrizketa:** Antonio Perez-Esclarin



516

- **Gaia:** Eskuak lan-tresna
- **Elkarrizketa:** Enrique Espartza, enologoa
- **Ikuspegia:** Nekane San Miguel
- **Euren ikuspuntutik:** Antton Mendizabal
- **Kirola:** Saioa Karate Taldea
- **Kultura:** Fantasiako zinema maratoia




521

- **Gaia:** La tabernera del puerto. Asteburuan estreinatuko dute zarzuela Amaian
- **Berezia:** Santamasetako 'berezia'
- **Hazi eta hezi:** Leire Blanco, Arrasate garapen jasangarriaren bidean kanpainako koordinatzailea
- **Kultura:** Big Lie Tourra badatorrela



517

- **Gaia:** Herri busa
- **Elkarrizketa:** Izabella Rohfls, lan-osasunean aditua
- **Ikuspegia:** Mikel Irizar
- **Euren ikuspuntutik:** Rafa Bastardo
- **Kirolak:** Behobia-Donostia
- **Kultura gaia:** Debagoieneko abesbatza



522

- **Gaia:** Olentzero gurera etorri da
- **Elkarrizketa:** Tomas Errarte
- **Kirolak:** Besaideren neguko eskaintza, abian
- **Kultura gaia:** Txikilandia





C B

**beatriz**

Erdiko kale, 11 ARRASATE Tfnoa: 79 14 33

1946-2000

Gabon zoriontsuak!

Camper, Dr.  
Marten's  
Panama Jack  
Nature

Hispanitas  
Ellos  
Escaleno  
Koll Flex

Lottusse  
Ferrerias  
Romika  
Montbui

Ibai-arteren  
bazkide



<http://www.cim-idiomas.com>

Informa zaitez orain!

# Hizkuntzak denontzat

haur, gazte eta helduentzat

- Hizkuntza eta maila guztiak
- Ordutegi malguak
- Mediateka zure esku dohainik
- Multimedia sistemak

Zorionak eta urte berri on!

A H I Z K E S . C O O P

Avda. de Álava, 4 - 20500 ARRASATE (GIPUZKOA)  
Tel.: 943 71 20 55 Fax: 943 71 21 81  
E-mail: secretaria@cim-idiomas.com

Olakua, 14 - 20560 OÑATI (GIPUZKOA)  
Tel.: 943 71 60 00 Fax: 943 71 80 51  
E-mail: onati@cim-idiomas.com

Florida, 8A - 01005 VITORIA-GASTEIZ (ARABA)  
Tel.: 945 15 01 55 Fax: 945 15 01 56  
E-mail: gasteizbaby@cim-idiomas.com

Zubieta, 26 - 20007 SAN SEBASTIÁN (GIPUZKOA)  
Tel.: 943 43 31 02 Fax: 943 43 37 36  
E-mail: donostia@baby.com

**CIM**  
HIZKUNTZAK-IDIOMAS

bai&by






Clio RENAULT

world wide car



MECA

ARRASATE Tel.: 943 71 24 72 • BERGARA Tel.: 943 76 40 68



# UGARTE

A R O Z T E G I A



- Apainketa
- Altzariak
- Leihoak
- Ateak
- Horma armairuak

Ondo  
pasatu  
jaiak!



San Juan, 1 • (Gasolindegiaaren parean) • BERGARA • Tel./ Faxa: 943 76 54 91



## Izaskun Murgia Lirika Elkarte

(499/23. or.) 2000.6.9

SUDCeke eta Goikobaluko kide Jesus Maria Artze eta Arrasate Musikaleko Tere Gonzalez irakaslearen ekimenari esker, Izaskun Murgia Lirika Elkarte jaio zen. Duela 30 urte zarzuelak Mondragoen izan zuen arrakasta kontuan hartuta, zarzuela berpiztea zen helburua.

## Epailea begiraleen alde

(498/12. or.) 2000.6.2

Donostiako Gizarte Auzitegiak erabaki zuen Familia eta Gizarte Heziketarako Zentroko begiraleak Kutxako langileak zirela. Ondorioz, Gizarte Segurantzari zor zitzaiona Kutxaren esku geratu zen.

Izan ere, 1998an begiraleen eta Kutxa Fundazioaren artean hasitako liskarrean, Kutxak zioen bere menpe

dauden mota horretako zentroetan lanean ari zirenak langile autonomoak zirela, eta euren ordaindu beharko lukezela segurantzaren dirua. Begiraleek, ordea, soldatapeko langileak zirela esan, eta, ondorioz, Kutxa Fundazioak ordaindu behar zuela esaten zuten. Azkenean, epaileak begiraleen alde egin zuen.

## aurrez aurre



Lehen pertsona idatzitako edozein dokumentuk bezala, ez digu objektibotasun ziurtasunik ematen (...). Erretratu psikologikoa, eta ez pertsonala, da bere lana. Gizartearen ondo kokatutakoa, bizimodu zuzen-zuzenarekin eta ospe handiko arbasodun gizon bezala aurkeztu nahi zuen berak. Ziur esan dezakegu oso pertsona zehatza, erlijiosoa, politikoki konprometitua eta Mondragoekiko eta adiskideenganako leiala zela.

**JOSE ANGEL ATXON**  
*Garibairen Memorias*  
edizio zuzendaria  
2000.6.9

## Solidarioak gose greban

(498/12. or.) 2000.6.2



Mondragoeko bi solidariok gose greba mugagabea hasi zuten euskal presoek elkartasuna adierazteko. Euskal presoak Euskal Herriratzea, zigorraren hiru laurdenak eginak dituzten presoek behin-behineko

askatasuna ematea eta gaixotasun sendaezinak dituztenak etxeratzea eskatu zuten. 27 egunean egon ziren ezer jan barik eta 15 kilo gutxiagorekin atera irten hilaren amaiera aldera.

## Txapeldunak

(499/22. or.) 2000.6.9

Mondraren bigarren gazte mailako arrasatearrak izan ziren futboleko Gipuzkoako txapeldunak. Elgoibarren jokatu zuten finala, Ilintxare aurka.



### ■ Aparkaleku gehiago

(498/11. or.) 2000.6.2

Otolara kalean 82 aparkaleku egiteko proiektua onartu zuen udalak. Bi norabidekoak izatea erabaki zen, tartekatuz. Horrez gain, telematika, zerbitzu, argiteria eta ureztatze sareetako eroanbideak ipintzea ere

erabaki zen. Lanok egiteko 19.872.482 pezeta aurrez ikusi ziren, horietatik 13.320.048, aparkalekuak egiteko.

### ■ Mururen urrezko ezteiak

(498/27. or.) 2000.6.2

Murumendiko gurutzak

50 urte bete zituen eta hori ospatzeko hainbat ekintza prestatu zituen Zeraia mendizale taldeak.



### ■ XVIII. mendeko aztarnak

(498/14. or.) 2000.6.2

Olarte kaleko lanak egiten ari zirela, XVIII. mendeko aztarnak aurkitu zituzten. Garai bateko Juan Carlos Guerraren etxea oraingo taxi geltokiaren inguruan zegoen, eta eraikinaren 30 metro luze eta

2 metro garai den zati bat aurkitu zuten.

**ML**

ILE APAINDEGIA

Alfonso X jakintsua, 1 behea  
(Grupo San Juan)  
Tel.: 943 79 79 65



Taberna-Jatetxea

Era guztietako  
bazkari eta  
menuak

*Hilarion jatetxeak  
egun zorionsuak  
eta urte berri ona  
opa dizkizue!!*

Aukera zabalena girorik atseginenean

Larrea Plaza, 5 • ARRASATE • Tel.: 943 77 01 69



**aurrez aurre**



**N**ahiz eta hainbeste gauza negargarri ikusi, gizakia gorantz doala uste dut. Hezkuntza ezinbestekoa da horretarako, gizakia- ren garapenerako. Hemen, Euskal Herrian, lehen ez geneukan horrelako askorik, eta orain, bai. (...)

**SEBERIANO AIASTUI**

*Misiolaria*  
2000.6.30

**Jaiak!!!**

(501/38. or.) 2000.6.23



Udako solstizioak agintzen duenez, San Joan jaiak ospatzen da ekainean, eta noski, Mondragoen, Sanjoanak!!!

Makala, sua, Salbea, danborrada, Eguzkilaru, musika banda, rock kontzertuak, bertsolariak, herri kirolak, Rete-gi Uarkapen... Denetarik izan zen herrian eta jendeak ondo aprobetxatu zuen aukera!

**Batasuna**

(501/13. or.) 2000.6.23

Jende asko elkartu zen Montterronen Batasuna prozesuaren aurkezpenean. Abertzale eta ezkerreko sentitzen diren guztiak batuko dituen erakundea sortzeko hasi zuten prozesu hau. Urtebeteko iraupena izango du aurrera egiteko, eta egitura politikoa hego Euskal Herrian kokatuko da. Mondragoen hamabi lagunek talde eragile bat sortu zen: Jon Andueza, Natale Landa, Leire Bergara, Mikel Irizar eta Antxon Mendizabal, besteak beste.

**Arrasateko Udala UEMArekin bat**

(498/13. or.) 2000.6.12

Arrasateko Udalak atxikimendua agertu zion UEMako (Udal Euskaldunen Mankomunitatea) Batzar Nagusiak martxoan hartutako erabakiari. Honakoa onartu zuen: "euskararen erabile-ra guztion ardura izanik, Euskal Herriko erakunde eta entitate guztiak animatzen ditugu euskararen aldeko konpromisoa adierazten".

**Lan-istripua**

(501/13. or.) 2000.6.23

Fagor Ederlanen izan zen lan-istripuak protesta ekintzak eragin zituen sindikatu eta langileen artean. Aurreko asteko egubakoitzean, dolua egin zuten Arrasate eta Eskoriatzako Fagor Ederlaneko langileek. Eta astelehen horretan, ELA, LAB, ESK eta STEE-EILAS sindikatuek deitutako kale bilkura egin zen Fagor Ederlanen aurrean. Euskal Administrazioari prebentzio planak betearaztea eskatu zioten, euren esanetan, segurtasun neurriak ez baitira betetzen.

**Entrenatzaile berria**

(501/24. or.) 2000.6.23

Mondrako lehen erregionaleko taldeak entrenatzaile berria izendatu zuen: Raul Leiba, 26 urteko Mondrako jokalaria ohia. Aurreko urtean ohorezko kadeteak entrenatzen aritu zen, eta Juanina Garairen ordeztalde nagusiaren ardura hartzea erabaki zuen. Raul Leibaren laguntzaile, berriz, David Zaitegi izendatu zuten.

**Enrike Letona Arrasaten**

(501/10. or.) 2000.6.23

Enrike Letona Arrasatera ekarri zuten Murtziako espetxetik. Aitaren, Tomas Letonaren, hileta elizkizunetara ekarri zuten. Enrike Letonak 14 urte daramatza kartzelan.



**Serafini laguntzeko**

(501/13. or.) 2000.6.23

Serafin Lorenzoren lagunek

haren familiari laguntzeko talde bat eratu zuten. Serafinek enbolia bat izan zuen eta tratamendu oso garestia behar du aurrera egiteko.

**Etixerat irabazle**

(501/22. or.) 2000.6.23

Etixerat Taberna taldeak irabazi zuen iazko Zaldibar txapelketa. Aldibi izan zen bigarren, AC Surkos hirugarren eta Dribling laugarren.



**Elizari buruzko liburua**

(501/27. or.) 2000.6.23

*San Joan Bataiatzailearen amaitu gabeko historia garrantzitsua* izeneko liburua aurkeztu zuten Jose Mari Astigarraga parrokoak eta liburua idatzi zuten historialariek, Carmela Rochak, Pedro Barrusok, Migel Larrañagak eta Jose Angel Lemak, hain zuzen. 207 orrialdetan parrokiaren historia eta parrokiaren egindako berritatzak lanak kontatzen dira.

**Goikobalu irabazle**

(501/27. or.) 2000.6.23

Logroñoko Autol-eko abesbatzen txapelketa irabazi zuen Goikobalu abesbatzak,

Lehen postu horrek aurten Madrilgo Griñon herrian jokatu den Espainiako Abesbatzen lehiaketan parte hartzeko bidea zabaldu zien.

**Udala-MU**

(502/10. or.) 2000.6.30

Arrasateko Udalak Mondragon Unibertsitateari 250 milioi pezeta ematea erabaki zuen. Dirua hiru urtean ematekoa da, GARAIA proiektuaren partaidetza moduan.

**Goiena eratu da**

(502/11. or.) 2000.6.30

Bailarako euskara elkarteko ordezkariak Goienaren estatutuak sinatu zituzten notarioaren aurrean;

horrela, elkarte berria eratu zen.

**Hirugarren diskoa**

(502/25. or.) 2000.6.30

Bad f-Line talde arrasatearrak hirugarren diskoa atera zuen. Aurreko diskoa bezala, berria ere Soziedad Alkoholika taldeko Jimmy J-k ekoiztu zuen eta Desobediencia disko etxe madrildarrak argitaratu.





## Akei, behera

(504/11. or.) 2000.7.14

Akeiko erraustegiaren zatirik handiena bota egin zen; lehen-go labeak, hain zuzen. Debagoieneko Mankomunitatearen Ingurumen batzordeak hartu zuen erabakia.

1996az geroztik, ez da zaborrik erretzen Akein: Arrasate, Bergara, Oñati, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Gatzagako zaborrak Sasietako zabortegira eramaten dira.

Zaborrak ekartzeko eta eramateko erabiltzen den transferentziagunea eta mankomunitatearen hainbat zerbitzu geratu dira Akein.

Arrasateko Udalarenak dira lurrok eta horiek bere onera ekartzeko asmoa du.

Bestalde, han egingo den konpostarekin Debagoieneko parkeak eta lorategiak ongarririko dira.

## IFAM, agur

(503/11. or.) 2000.7.7



Bota egin zuten Feliciano Aranzabal enpresa, 52 urte-

an zutik egon eta gero. 210 etxebizitza egingo dituzte han.

## Eskola Politeknikoa handitzen

(503/12. or.) 2000.7.7

Arrasateko Udalaren eta Mondragon Unibertsitatearen arteko elkarlana bete egin zen.

Javier Retegi Mondragon Unibertsitateko errektoreak, Xabier Retegi Eskola Politeknikoko zuzendariak, Xabier Zubizarreta Arrasateko alkateak eta Felix Ormaetxea Gizabidea Fundazioko

zuzendariak hitzarmen bat sinatu zuten.

Onartutakoaren arabera, 2003. urtea bitartean 250 milioi pezeta emango dio Arrasateko Udalak GARAIA egitasmoari. Eskola Politeknikoko beharrak asetzen laguntzeko diru laguntza izango da.

## aurrez aurre




**E**uskal Herria nolabaitzeko anbibalentziarekin ikusten dut.

Batzuetan erromantizismoz. Eta beste batzuetan nazkaz, jendea ez delako gai elkartu eta lana batera egiteko. Zikoiztasunak sekulako amorrua ematen dit eta horrela idatzi dut Interneten, IBSen (Institute os Basque Studies) forumean.

### IMANOL GOLFARSORO

*Guildhall unibertsitateko irakaslea*  
2000.7.7



### Istripua Fagorren

(503/11. or.) 2000.7.7

San Andresko Fagor Hozkailuetan istripua izan zen. 22 urteko langile abxalbatar batek lau hatzamar moztu zituen plastikoa ebakitzeko erabiltzen den makina batean.

### Rocíoa

(503/19. or.) 2000.7.7

Al-Andalus elkartearen eskutik, Rocíoako erromesaldia ospatu zen Arruena parkean.



### Bazkide kuotak gora

(503/23. or.) 2000.7.7

Mondrak %5 igo zituen bazkideen kuotak. Horren arabera, kuotarik garestiena 10.500 pezetakoa da eta merkeena, 1.500ekoa.

### Fagor eta katua

(504/9. or.) 2000.7.14

Katu baten erruz milioitako diru galerak izan zituen Fagor Arrasatek. Transformadorean sartu zen katua eta milaka voltioko deskarga jaso. Ondorioz, katua hil eta transformadorea zeharo hondatuta geratu zen, lantegia argindar barik utziz.

### Garraio publikoa hobetuz

(505/12. or.) 2000.7.21

Debagoieneko garraio publikoa hobetzeko egitasmoa aztertzen hasi zen mankomunitatea.

Bost urteren buruan garraio zerbitzuak aldatu egin nahi dira bailaran.

### Kirolegi berria 2001. urtean hasiko dute

(505/26. or.) 2000.7.21

Musakolan egin nahi den kiroldegia aurreko urteko planarekin alderatuz gero zein aldaketa izango dituen jakin genuen. Aldaketarik nabarmenena, lehen

atletismoko pista futbol zelaiarekin batera zeudela, eta orain errugbi zelaiarekin egingo direla.



### Bolo Palma

(505/28. or.) 2000.7.21

Santa Marinako jaien barruan, Gipuzkoako Bolo Palma txapelketa jokatu zen Peña Bolística Mondragon taldeak antolatuta. Txapeldunek Espainiako txapelketa jokatzeko aukera lortu zuten.





aurrez aurre



Neskek sekulako poztasanak eman zizkidaten eta ez bakarrik Gipuzkoako Kopa irabazi genuelako, baizik eta eurengandik gauza asko ikasi nituelako. Oso ezberdina zen eurekin lan egitea, baina atsegin nuen. Gogoratzen dut entrenamendu batean ez zutela baloia buruarekin jotzerik nahi. Ordubetez ibili ginen buruarekin jotzeko agintzen, baina gero lortu genuen. Lagun handiak egin ginen.

**JESUS MARI  
BARRUTIABENGOA**

*Aloñako entrenatzaile ohia*  
2000.7.21

## Gipuzkoako kirolari onenak herrian

(503./22. or.) 2000. 7.7



Jonathan Perez, Unai Sarabia eta Oskar Gavilanez urrezko domina bana irabazi zuten Eibarko Unbeko pistetan. Arrasate Kirolak Atletiko Taldeak ordu arte zuen marka hautsi egin zuen. Oskar Gavilanez disko eta pisu jaurtike-



tan irabazi zuen; urrea, bi kiloko disko jaurtikitetan.

Unai eta Oskarrek ere urrea eskuratu zuten eta, gainera, euren marka pertsonalak hobetu zituzten. Oskarrek zilarra ere irabazi zuen.



## Aurkikuntza Lezetxikin

(504./10. or.) 2000. 7.14

Aurrehistoriako gizakiak erabiltzen zuen apaingarri bat aurkitu zuten Lezetxikin lanean zebiltzanak.

Ustez, jabeak bizilekua apaintzeko erabili zuen apaingarria da eta Parisen egindako antzeko aurkikuntza batekin bakarrik pareka daiteke.

Horrez gain, datu esanguratsuak ere eman zituen apaingarriak: Neanderthal garaiko gizakiari ohitura jakin batzuk egotzi izan zaizkio, gizaki modernoarekin zeri-kusirik ez dutenak. Lezetxikin egindako aurkikuntzak, ostera, zalantzan jarri zuen uste hori.

## Ondo izan, Felix

(506./18. or.) 2000. 9.1

Felix Iñurrategi mendizale atxalbatarak bizia galdu zuen uztailearen amaieran Gashembrum II-ko gailurra egin eta gero. Gure bailarak, eta Euskal Herria osoak, oro har, sakon sentitu zuen Felixen heriotza.



Euskaldunon Egunkaria

## Presoen eskubideen alde

(504./11. or.) 2000. 7.14

Euskal Presoen Eskubideen Aldeko Martxa Nazionala Mondragoetik pasatu zen. Herriko 45 taldek hartu zuten parte, bakoitzak 100 metro eginez.

Mondragoetik Oñatirako bidea hartu zuen martxak.

# egizabal

## Oinetakoak eta poltsak

Ondo pasa  
jaietan!!

Olarte, 14 • ARRASATE • 943 79 66 01  
Bidekurutzeta, 13 • BERGARA • 943 76 12 28



## Frai Rufino hil zen

(506/11. or.) 2000.9.1

Rufino Oianguren Uribetxebarria, frai Rufino, abuztuaren 2an agurtu genuen, minbiziak jota hil baitzen. Sortzez eskoriatzarra zen, baina azken 38 urteak Arrasateko frantziskotarren artean eman zituen, baina hango eginbeharrek ez zioten arrasatearrek solasean aritzeko astirik kendu. Gaztezale handi, bihotz handiko pertsona eta fede xalodun bezala gogoratu zuten herritarrek.

## Orbearen urte oparoa

(506/7. or.) 2000.9.1

MCCko kide Orbea enpresak urteko lehen erdiko emaitzak jakinarazi zituen: salmentak %24ko hazkundera izan zuten, eta 2.410 milioi pezetako fakturazioa lortu zuen epe horretan.

Bizikleta enpresa horrek esportazioan oinarritzen du bere estrategia, eta arlo horre-

tako emaitzak ere onak izan ziren lehenengo sei hilabete-an: Frantzia, Alemania eta Belgikako merkatuetan batik bat, %72 hazi ziren salmentak. 2000. urte osoan 5.300 milioi pezetako irabaziak espero zituen Orbeak; oro har, aurreko urtean baino %20 gehiago.

## Goio Etxabe askatu zuten

(506/9. or.) 2000.9.1



Goio Etxabe preso arrasatearra abuztuaren 13an aske geratu zen, eta irailean egin zioten omenaldia Amnistiaren Aldeko Batzordeek eta Senideak-ek. Goio Etxabek bost urte egin

zituen espetxean. 1999an bete zituen zigorraren hiru laurdenak, eta maiatzean gose grebari hasi zuen, Martuteneko beste hainbat preso bezala. Hilabete egin zuen gose greban.

## LHTren aurkako akanpada arrakastatsua

(506/7. or.) 2000.9.1

Lastertasun Handiko Trenaren aurkako 13 eguneko akanpada egin zen Mondragoen, eta antolatzaileak pozik azaldu ziren emaitzekin: astebarruan 300 lagunek hartu zuten parte, eta asteburuetan bostehundik gora. Euskal Herriko parte hartzaileez gain, Espainiako, Frantziako eta Alemaniako lagunak etorri ziren. LHT izan zen gai nagusia, baina ingurumenaren kalterako beste proiektu batzuk ere salatu zituzten, tartean Eibar-Gasteiz autobidea.



Egindako salaketako ekintza bat.

## Hiru atxiloketa

(506/7. or.) 2000.9.1

Hiru lagun atxilotu zituzten Arrasaten. Abuztuaren 21ean, Esther Unzueta eta hilabete-ko alabatxo eraman zituen Ertzaintzak; eta baita Iker Garitaonandia ere. Hurrengo hiru egunetan, atxiloketen aurkako mobilizazioak egin ziren herrian. Madrilgo Entzutegi Nacionalean deklaratu zuten, eta kargu barik aske utzi zituen epaileak: Unzueta eta alaba 29an askatu zituzten, eta Garitaonandia, irailaren 1ean.

Arrasateko Alde Zaharrea bi harategi daukazu kalitate zigorludun Euskal Okela erosteko, Euskal Herriko Okela, osasuntsu, zaporetzu eta naturala:

**Landaluze Harategia (Iturriotz 7)**  
**Jose Mari Salegi Harategia (Olarte 20)**

EUSKO LABEL



## Jatorri bermea: Euskadi

Nongoa da okela? Euskal Okela guztia Euskal Herrikoa da eta gure baserrietan era tradizionalean hazitakoa.

1.000 pezeta euskal okelako, 29"ko 3 telebista Sony, 6 Thompson DVD eta 20 Philips Conbiren (telebista eta bideoa) zozketan parte hartuko duzu.



**aurrez aurre**



**H**ainbat alditan hitz egin den moduan, abertzaleen artean gutxieneko printzipio batzuk adostu beharko lirateke eta horiek garatzeko beldurrak uxatu beharko lirateke. Ez dakit gauden egoerarako larregi eskatzea den edo ez, baina beharrezkoa ikusten dut gutxieneko puntu batzuetan lan egitea eta ez egotea borroka armatuari begira. (...) Gauza asko egin daitezke horri begira egin barik.

**GOIO ETXABE**

*Preso ohia*  
2000.9.8

**'Hilarri' aurkeztu zen**

(506/16. or.) 2000.9.1



Abuztuaren 25ean aurkeztu zen hilarri film laburra. Manu Gomez, zuzendari mondragotarrak, zuzendu zuen eta Maider Egues izan zen aktore nagusia.

Gidoia Manu Gomezek

eta Aitor Mantxolak idatzi zuten. Hilaren bukaera alde- ra Donostiako Zinemaldian ere ikusi ahal izan zen Hilarri.

Denborarekin, sariak irabazi ditu film labur horrek.

**Ulma eta Danka batera**

(507/11. or.) 2000.9.8

Arrasateko Danka eta Oñatiko Ulma enpresek urtebetetz edo elkarrekin bizitzeko erabakia hartu zuten. Ondoren, dena ondo doala ikusten badute, Ulmaren multimedia adar

bihur daiteke Danka. Hitzar-menaren bidez, Dankak Ulmak duen indarraren babesa lortuko luke eta Ulmak teknologia berrien eta Interneten merkaturatu sartzeko lortuko luke.

**Aldaketak Arrasateko Udal Gobernuan**

(507/12. or.) 2000.9.8

EAJk udal gobernu utzi eta horren ondorioz, ordura arte bere zinegotziek betetzen zituzten karguak EA eta EHren zinegotzien artean hartu zituzten. Itsaso Garaien ordez Jose Mari Urizar izendatu zuten 2. alkateorde eta baita Maria Angeles Inurrategiren lekua betetzeko: auzoen ordezkari. Lan Batzorderako, berriz, Juan Ramon Garai izendatu zuten, Jose Mari Loitiren ordez.

**Langile finkoak Fagorren**

(507/11. or.) 2000.9.8

328 langile finko hartu zituzten Fagorren. Hasiera batean, 275 bazkide egiteko asmoarekin. Urtarrilean euren lanpostuetan hasteko dira langile berriak.

1.000 bazkide berri baino gehiago egin ditu azkenengo hiru urteetan. Iaz ia 500 gazte sartu ziren eta 98an, 200.

**Azoka Lau Kalera**

(506/9. or.) 2000.9.1

Irailaren batean

ostiraleko merkatu txikiak kokalekua aldatu zuen: Lau Kale plazara. Arrazoa, San Joan eta San Andresko kokalekuak txiki geratu zirela.

**Trikitalariak Austrian**

(506/16. or.) 2000.9.1

Arrasateko Trikitalari

Eskolakoak Austrian izan ziren, Sreistast herrian, nazioarteko folk jaialdi batean parte hartzeko. Hiru egunez aritu ziren trikitixa jotzen Ane, Irene, Sunai, Maite eta Ainhoa. Jendearren harrera bikaina izan zen ezusterik handiena. Datozen bi urteetan berriro

joateko gonbidatu dituzte austriarrek.



**Titulu berria**

(507/12. or.) 2000.9.8

Arizmendi Kooperatibak titulazio berria eskainiko zuela iragarri zuen: Eraikuntza Proiektuen Garapen eta Aplikazioa, hain zuzen. Eraikuntza proiektuetako arkitekto eta arkitekto

laguntzaileei zuzendutakoa da. Lanbide Heziketako goi mailako titulua eskuratu ahal izango da.

**Zarata aztertzen**

(508/10. or.) 2000.9.15

Arrasateko kaleetan dagoen zarata larregiakoa den edo ez aztertu zen. Udaleko Ingururumen Sailak bideratuta, San Viator ikastetxeko Jone Ezkurak eta Miren Urkiak zuzendu zuten lana. Zaratak gaiditu egiten zuen udal araudiak ezartzen zuen muga, baina ez zen kezagarria oso kopuru gutxian gaiditzen zen eta.

**Plan Gerontologikoa**

(509/10. or.) 2000.9.22

Datozen lau urteotan

Gipuzkoako zaharren beharrak asetzeko plan gerontologikoa aurkeztu zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak. Helburua honakoa da: pertsona nagusia ahalik eta denbora gehien bere etxean bizi ahal izatea eta beste bizitoki moduak (etxebizitza komunitarioak, elkarbizitzako etxebizitzak...) bultzatzea.

**1.000 Baietz abian**

(510/11. or.) 2000.9.22

AEK, AED eta EHE elkarteek Justizia Administrazioarekin izan beharreko haremanak euskaraz izan daitezela eskatzeko kanpaina

bat abian jarri zuten. 1.000 Baietz izenarekin, kanpainaren ardatza lehen aipatutakoa eskatuz 1.000 sinadura batzea zen.



**MU, CIM, eta EMUN elkarlanean**

(510/11. or.) 2000.9.22

Mondragon Unibertsitateak lankidetzeta hitzarmena sinatu zuen CIM hizkuntza eskolarekin eta EMUN kooperatibarekin



## Besaide Eguna

(509/21. or.) 2000. 9.22

Udalatik, Kanpanzartik eta Elorriotik igota, euskal mendizale ugari elkartu ziren Besaideko urteroko hitzorduan. Falta ziren mendizaleei omenaldia egin zitzairen, tartean, jakina, Felix Iñurragiri.



## Herri autobusa Mondragoen

(507/9. or.) 2000. 9.8



Irailaren 11n ekin zion herri autobusak bere bideari. Bi linea, bi ibilbide. Hasierako 35 geltokiei, beste 7 gehitu behar izan zitzaizkion gero-ra, jendeak halaxe eskatuta.

Herri guztiari buelta ematen diote ordudunik.

Bata Eroskitik irteten da, eta bestea, Erguin auzoko Gorostiza baserriaren ingururik.

## Udal Haur Eskola

(510/12. or.) 2000. 9.29

Udal Haur Eskola sortzea erabaki zuen Arrasateko Udalak eta irailean adjudikatu zuen zerbitzua. Enpresa bakarra aurkeztu zen lehia-kerara, Umezaintza, eta jakina, Umezaintzari egokitu zitzaion Udal Haur Eskola.

## Eguneko zentroa

(510/11. or.) 2000. 9.22

Gaur egungo eskaerei erantzuteko irekiko du Aita Menik Eguneko Zentro Psikopedagogikoa.

Urbe Auzoan irekiko dute eta 35 lagunendako lekua izango zuela iragarri zuten..

## aurrez aurre



**G**ure egoera ekonomiko oso ona da. Enpresak ondo dabilta bai kooperatibaren barruan zein kanpoan ere; enpleguak sortzen dira...bailaran ezin daiteke esan langabezia dagoenik, agian langabezia teknikoak bai, baina gutxieneko mailan dago langabezia. Akats bat: lanpostu berriak enplegu ez egonkorrek direla, hau da, behin-behineko enpleguak direla, eta pentsa daiteke sortu ahala galdu daitezkeela.

### JUAN JOSE ARRIETA

*Euskadiko Kutxako zuzendaria*  
2000.9.15

## LHT ez da geratuko

(508/13. or.) 2000. 9.15

Eusko Jaurilaritzak erabakitakoaren arabera, Lastertasun Handiko Trenak ez du gertakurik izango Debagoienean. Ezkio-Itsason kokatuko da geltokirik gertuena..

kin.

Horrek sortu berri den Hizkuntzen Psikopedagogia ikasketetako ikasleei praktikak egiteko aukera emango die. Lanean dauden gabeziei aurre egin nahi zaie. Lan teorikoez gain, praktikak indartu nahi dira.

### ■ Txapelkunak Arrasaten

(510/26. or.) 2000.9.29  
Nafarroan jokatu zen VIII.

Julian Gayarre nazioarteko kantu txapelketako bost irabazleek, Pablo Sarasate orkestrak babesturik, emanaldia eskaini zuten amaia Antzokian.

### ■ Motokross txapelketa

(510/25. or.) 2000.9.29  
III. Motokross txapelketa

jokatu zen Mojatetik zelaian. Euskal Herriko motokross txapelketarako baliagarria izan zen. 40 lagunetik gora eman zuten izena. Arrasate Motozale Elkartetik, berriz, 30 bat lagun

aritu ziren, tartean bi arrasatear: Pako Carmona (125 cc) eta Jose Angel Zurriaran (250 cc)

### ■ Arrasateko kirolariak Espainiara

(510/25. or.) 2000.9.29  
Arrasate Kirolak Atletiko Taldeko bi kirolari, Jonathan

Perez pertika jauzilaria eta Unai Sarabia korrikalaria, Espainiako txapelketan izan ziren.

Sukalde altzarien fabrika eta horman-armairuak



- Fabrikako prezioa
- Erakusketa zabala. 2 solairu
- Kalitatea eta diseinua
- Azken berrikuntzak

Kataide Industrialdea, 6. pabilioia  
ARRASATE • Tel.: 943 71 25 08

**UGARAN**  
jatetxea

Garagartza auzoa  
Tel.: 943 79 76 58  
ARRASATE



aurrez aurre



**K**utsu internazional handiagoa eman nahi diot Zinemaldiari.

Espanian, zinema jaialdirik garrantzitsuena da Donostiakoa; baina, Europan, Cannes eta Veneziakoak gainetik daude, eta horiekin parekatu nahi dut; hots, eman ahal duen guztia eman dezala Zinemaldiak. Horretarako, atzerriko prentsa gehiago erakarri behar da, batez ere Estatu Batuetakoa. Baina, epe luzerako egitasmo bat da.

**MIKEL ETXAGIBEL**

Zinemaldiko zuzendariordea  
2000.10.6

**Txikizioak Maritxutan**

(512/10. or.) 2000.10.11

Maritxu Kajoi gauean burua estalita zeramaten 20 bat lagunek bost banketxeren eta epaitegiaren kontra egin zuten. BBVA, Kutxa, Banco de Vitoria, BSCH eta Caixa-ko egoitzei eta herriko epaitegiari molotov koktelak jaurti zizkieten, eta baita Viajes Eucador bidai agentziari ere.

Gertaeren aurrean, EHko zinegotzi taldeak hiru puntuko ohar bat kaleratu zuen aste horretako domekan. Besteak beste, «elkarlanean txikizioek zailtasunak sortzen dituz-



tela» adierazi zuen, eta baita «bizi dugun gatazka gainditzeko herri ekimen eraikitzaileak bultzatu behar direla».

**Maritxuren miraria**

(512/21. or.) 2000.10.11



**Ikastolak eraikin berria**

(511/13. or.) 2000.10.6

San Frantzisko Xabier Ikastolak eraikin berria izango duela jakin genuen, Santa Teresa (Espino) ikastolaren-gandik gertu; udalaren lursail batean, hain zuzen ere. Eraikinaren gastua ere udalak hartu zuen beregain; guztira, 112 milioi pezetako inbertsioa. SFX Ikastolak Santa Teresako oktogonoak erabili izan ditu, baina Arrasateko Planeamenduaren Egitamu Orokorraren eraginez, oktogono horiek ordenazioz kanpo geratu ziren.

**Garaia Uribarrira**

(513/12. or.) 2000.10.11

MCCK eta MUK bultzatutako Garaia proiektua Uribarrin egingo dela erabaki zuen Arrasateko Udalak. 50 hektarean 20 zentro teknologiko egingo dira, besteak beste. Uribarri aukeratu zen Eskola Politeknikotik, Ikerlanetik eta MCC-tik gertu egoteagatik.

Uribarriko lurak zortzi urte baino lehen desjabetu beharko dira.

**EAK 14 urte**

(511/10. or.) 2000.10.6

Arrasateko Eusko Alkartasunak 14 urte bete zituela eta, bazkaria egin zuten alderdikideek Alkartetxean. Besteak beste, Gorka Knörr idazkari nagusia eta Rafa Larreina alderdiko bozeramailea izan ziren hantxe.

**25. motokros txapelketa**

(511/25. or.) 2000.10.6

Gaizka Agirre bergararrak irabazi zuen Arrasate Motorzale Elkartek antolatutako motokros txapelketa. Hirugarren aldiz egin zen txapelketa Mojategin.



**Atxabaltar olinpiarra**

(512/22. or.) 2000.10.11

Joseba Larrinaga elbarriendako Sidneyko Joko Olinpiarretara joan zen 5.000 metroetako lasterketa eta maratoia jokatzera. 5.000 metroetan ezin izan zuen parte hartu. Maratoian, berriz, bosgarren izan zen eta diploma olinpiarra eskuratu zuen.



**Arrasatearra kartzelara**

(513/11. or.) 2000.10.11

Aitziber Uribetxeberria gaztea Baionan atxilotu zuten, eta hiru hilabeteko kartzela zigorra ezarri zion epaileak.



**Epaimahaia erabakita**

(513/10. or.) 2000.10.20

Irailaren 26an datozen bi urteotan epaimahai izango diren gipuzkoarrak zozkatu ziren eta tartean arrasatearrak ere bazeuden. Guztira, 30 mondragoetarrek jardun beharko dute epaimahai lanak betetzen.



## San Prudentzio- Epele

(513/12. or.) 2000.10.20

Diputazioak onartu egin zuen San Prudentzio eta Epele arteko bide zatian egin beharreko lanen proiektua. Horren arabera, urte hasiera aldera lanei ekingo zaiela aurrez ikusi zen.

Besteak beste, San Prudentzioko bidegurutzean 58 metroko diametroko biribil bat egitea erabaki zen. Horrekin batera, zubi berri bat ere egingo dela azaldu zuten. Bestalde, Deba ibaiaren ibilbidean ere konponketa lan batzuk egin beharko zirela esan zuten. Errepidearen alde bakoitzean bi metroko bazterbidea ere sortuko omen dute.

Lanok sei hilabeteko iraupena eta 494 milioiko aurrekontua izango dutela azaldu zuten errepideetako ardura-dunek.



## Roneo, zulotik ateratzen

(511/14. or.) 2000.10.6

Zorretan zegoena pagatuko zuen Roneok azaroan, guztira, 600 milioi pezeta. Horietatik 300 milioi Gipuzkoako Haziendari zor zizkion eta beste 210 Gizarte Segurantzari.

Garibai kaletik Musakolarara aldatu eta gero, egoera larrian jarri zen Roneo. Hain larria, ezen 1995. urteko Gabonetan Cerrajerak hiru pezetan saldu baitzuen enpre-

sako langileei. Sei hilabete geroago ia porrotean zegoen, 2.000 milioi pezetako zorrekin. Harrezkero, berriz, aholkularitza enpresa baten laguntzarekin, poliki-poliki zulotik irteten joan ziren.

140 langile ari dira Roneon lanean. Betiko moduan, bulegoetarako altzariak eta ate metalikoak egiten jarraitzen dute.

## Susto ederra

(513/11. or.) 2000.10.20



Urriaren 7an, arratsaldean, Obenerreka kaleko bizilagunek susto ederra hartu zuten. Gernika Zumardiaren zubia ipintzen ari zirela, 20 metro

luze den eta 560 kilo duen hormigoizko habe bat errepide-  
ra erori zen.

Zorionez ez zuen inor azpian harrapatu.

## aurrez aurre



Gizarteari begira, egon dela aldaketarik. Etxeko langileek argi dute eurak ere langileak direla, beste edozein moduan. Lanean jasaten dituzten legez kanpoko egoerak salatzen hasi dira, eta ez norberaren egoera salatzeko bakarrik, baizik eta ondoren datozen langileen egoera hobetzen laguntzeko ere... Hasi gara ikusten nolabaiteko kontzientziario sozial bat.

### ISABEL QUINTANA

Etxeko langileen  
Bizkaiko elkarte  
prokuradorea  
2000.10.27

### ■ Ekinek bost urte

(513/10. or.) 2000.10.20

Ekin Emakumeak taldeak bosgarren urteurrena ospatu zuen. AEDren baitatik sortua, emakumeekin lanean diharduen euskara elkarte bakarrenetarikoa da Mondragoen.



### ■ Kanpaiak isilarazteko

(514/11. or.) 2000.10.24

1999an San Juan parrokiako kanpaiak 22:00etatik 08:00etara isildu egin behar zirela erabaki zuen Arrasateko Udalak, herritar baten kexua jaso eta gero. Baina, parrokiak ez zuen udalaren erabakia onartu eta udalak beste 15 egun

eman zizkion kanpaiak isilarazteko. Parrokiaren erantzuna, ordea, soinua jaistearen aldekoa izan zen eta oraindik ere hori zelana egin aztertzen dihardute.

### ■ Hiesdunen eskubide- en defentsan

(514/12. or.) 2000.10.27

Hies Berri elkarteak

hiesdun gaixoen eskubideen defentsarako kanpaina berezi bati ekin zion. Azkenaldian, hiesa duten hainbat gaixori urritu moduan dagozkien pentsioa kendu egin diote. Horregatik, legea aldatzeko kanpaina hasi zuten.

## Hilbera kafetegia

Uribarri Etorbidea  
ARRASATE  
Tel.: 943 79 22 70

## ARROGOI TABERNA

Ospatu gurekin urte berria!

Zarugalde, 28 • ARRASATE • 943 79 06 40



### Gambrinus garagardotegia

- Menua:  
bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak

Otalora Lizentziatua. 40-42  
Tel.: 943 79 53 32



## aurrez aurre



**C**OO eta UGTrekin ere ondo konpondu nahiko genuke.

Bi baldintza ipintzen ditugu: Euskal Herriak bere nortasuna duela eta lan arloan ere berezitasunak ditugula eta gehien-goia onartu behar dutela.

**LUIS MIGUEL SAENZ**

ELA  
2000.10.11

## Atentatu saiakera

(514/11. or.) 2000.10.27



Urriaren 12an atentatu saiakera izan zuen JOMA enpresak. Jabeak, Antton Gallastegik, leherkari bat aurkitu zuen lantegiko ate batean eta Ertzaintzaren errobotak indargabetu zuen.

Atentatu saiakera salatzeko, udalbatzak hiru egun behar izan zituen osoko bil-


kuran testu bateratu bat aurkezteko. EHK, EAK eta Ezker Batuak «esku artean darabilgun gertakizuna, negatiboa gertatzen da, Arrasateko enpresa-garapenarentzat eta, beraz, erabat errefusatzen dugu» zioen mozioa aurkeztu zuten eta onartu egin zen hiru alderdion botoekin.

## Ingurumena

(513/11. or.) 2000.10.20

Arrasatearrak ingurumenarekiko duten jarrera zein den jakiteko inkesta bat egitea erabaki zuen udalak. Mondrago-etarren portaera birziklatzeko orduan zein den jakiteko helburuarekin hasi zuten galdeketa.

Inkesta egiteko 1.276.000 pezetako inbertsioa aurrez ikusi zen. Izan ere, inkesta sentsibiliazazio kanpaina baten atal bat da. Kanpainak sei hilabete iraungo duela iragarri zuten.



**weru®**

**weru®**

**Ate + leihoak**



ERAKUSKETA: Garro Jenerala, 2  
BILTEGIA: Markulete Industrialdea, 20. pabilioia  
Tel.: 943 79 24 12 eta 943 79 97 95  
ARRASATE



*Salterain*


PVC-zko ate eta  
leihoez gain:  
moketak,  
zoru arinak,  
kortxoa,  
Louverdrape  
kortinak,  
Kortinoba, testila...



# Opel Corsa berria



DISEINUA ETA PRESTAZIOAK BATEGINIK

**OPEL** 

**TALLERES OLA**

**TAKOLO AUTOAK, S.L.**

Olabarrena auzoa z/g  
Tel.: 943 76 33 44 / 45 / 46 / 47 • BERGARA

Zerbitzu ofiziala ARRASATEN  
Araba etorbidea 3 (Eskatu pabilioia) • Tel.: 943 79 05 86

# GANBARA

- Enmàrkazioak
- Estiloko markoak
- Laminak
- Arte lanak (margo lanak)
- Altzari zaharrak

*Gabonak gainean dira.  
Hasi artea oparitzen!*

Arte ederretako  
materialean  
%25-30eko deskontua

Erguin, 2 behea • Tel.: 943 77 12 37





# Urrun hel daitezke enpresak garraio zerbitzu aurreraturik gabe?



## EZ

Begiratu Europa berriari eta merkatu bakarra ikusi. Herrialde bakar bat balitz bezala erantzuteko ahalmena duen garraio sare batekin.

Begiratu etorkizunean pentsatzen duten enpresei. Jadanik logistika eta garraiorako aukera berriak eskatzen ari dira. Eta erantzun egokiena eman.

Begiratu ekonomia berriari. Eta ikusi garraioa eta distribuzioa ezinbestekoak izango direla. Nola hitz egin genezake Internet-en bidezko salerosketez, primerako garraio zerbitzurik gabe?

Arrazoi hauek bultzatu dute **Guipuzcoana Deutsche Post Euro Express** taldean sartzea, Europako garraio eta banaketa sare aurreratu baten partaide izatera: **Euro Express**.

Emaitzak bidean daude.





# AKEIko langileek arrazoia

(516/12. or.) 2000.11.1

Auzitegi Gorenak, hiru urte-  
ren bueltan, arrazoia eman  
zien AKEIko erraustegitik  
botatako langileei. Hiru urte-  
otan jaso ez zuten dirua berres-  
kuratzen saiatu dira. 1996an  
hasi zen arazoa, erraustegia  
ixtear zegoela. Hamar langi-  
le kaleratu zituzten. Orduan,  
erraustegia zerbitzu publikoa  
zen eta Dragados y Construc-  
ciones enpresak kudea-  
tzen zuen, baina Mankomu-  
nitarekin zuen hitzarmena  
amaitzean, langileen kontra-  
tuak eten zituen.

Langileek zerbitzu publi-



koa ematen zutenez, enpre-  
saren jokabidea ez zela  
legezkoa uste izan zen, eta  
ELA sindikatuak lagunduta,  
salaketa jarri zioten enpre-

sari. Mobilizazio-salaketa  
asko egin ziren, eta lau urte-  
ren bueltan, Auzitegi Gore-  
nak arrazoia eman zien lan-  
gileei.

## aurrez aurre



**B**erezia da idazleen  
ikuspegia besteona-  
ren aldean; eta  
horretan datza idazlearen  
egitekoa: gehiegoak ez  
duen munduaren ikuspegi  
bat planteatzean, lurralde  
berriak agertaraztean.  
Aurretik doan espirituzai-  
le intelektuala da idazlea:  
batzuetan, Amerika  
deskubritzen du, bestee-  
tan, Mediterraneoa.

### ESPIDO FREIRE

Idazlea


2000.11.10

# Muren plan estrategikoa

(516/14. or.) 2000.11.1

MUK zortzi urterako plan estra-  
tegikoa aurkeztu zuen Donos-  
tian. 6.500 milioi pezetako  
inbertsioa egitea aurrez ikusi  
zuen, lursailak erosteko eta ira-  
kaskuntzarako tresnak eros-  
teko. Planaren helburuetako  
bat ikerketa saila lantzea da.  
Euskararen aldeko apustua  
ere egingo omen du, ikasleak  
euskaraz, gaztelaniaz eta inge-  
lesezt aritzeko prestatuz.

## ESKUALDEAREN GARAPEN ESKEMA



### ■ Zergek %2,8 egin dute gora

(515/11. or.) 2000.11.3  
Kontsumo Prezioen Indizea  
baino gutxiago, baina gora  
egin zuten udal zergek. Igoera  
handiena Iturbide egoitzak izan  
zuen: %10, hain zuzen ere.

### ■ Unitate berria Aita Mennin

(515/11. or.) 2000.11.3  
Mendekotasun fisiko eta  
psikiko larriak dituzten  
zaharrak zaintzeko, eta ahal  
den neurrian galtzen ari diren  
gaitasunei eusteko, unitatea  
aurkeztu zuen Aita Menni  
ospitaleak. 35 lagunendako

lekua izango du eta  
Diputazioarekin batera  
ateratuko egitasmoa da.  
Benito Meni izena hartu zuen  
unitateak.

### ■ Elkartasun aerobitoia

(515/11. or.) 2000.11.3  
Lirain Gimnasioak, *Merezi*  
*duten aukerak* lelopean,  
elkartasun aerobitoia  
antolatu zuen Arrasateko  
Mugarik Gabeko Ingeniariak  
GKEri laguntza eskaintzeko.

Bildutako dirua  
Nikaraguako Diriamba hirira  
bidaltzeko izan zen.

**EGUZKIGRAF**  
inprimategia

Industrialdea 1-0-4  
Telefonoa: 791844  
Faxia: 792941


## RUMBA TABERNA

JAI ZORIONTSUAK IZAN!!

Iturriotz kalea  
ARRASATE • Tel.: 943 79 20 00



aurrez aurre



**E**uskal Herria beti izan da desobedientea, ledo, behintzat, kanpotik inposatutako legeen aurrean beti erakutsi du erresistentzia. Armadara ez joatearren, Amerikara joaten zen jendea; gero etorri zen intsumisia. Horren bidetik, esaterako, erakutsi da posible dela lege bat aldatzea gizartearen interesak kontuan hartuz. Aplikagarria da bestelako esparruetan, subirnotasunaren esparruan, hain zuzen ere.

**XABIER SARASUA**

ABK

2000. 11. 24

## Fagorreko biltegia, kiskalita

(517/11. or.) 2000.11.17



Azaroaren 9an erabat erre zen Fagor Elektra-tresnak kooperatibaren Gasteizko biltegia.

2.500 metro koadroko biltegia zen eta 10.000 milioi pezeta inguruko kalteak eragin zituen.

## Bai Euskal Herriari

(518/11. or.) 2000.11.24

Azaroaren 21ean aurkeztu zen Arrasateko Bai Euskal Herriari taldea, Monterronen.

1.000 sinadura batu zituzten herrian, Udaltzari Herritartasun Nazio Agiria sor dezan eskatzeko.



## Parques y Jardines

**Parke eta lorategien sorkuntza.**

**Lorazaintzako mantenimendua orohar.**

**Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.**



Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)



*cerámicas*  
**URIBARRI**

Zeramika  
erakusketa eta  
salmenta



**aurrez aurre**



**G**aur egun desberdintasunak egon badaude, ezkutuan dauden arren. Adibidez, 12 urteko nesken eta mutilen artean, sexualitateaz berba egiterakoan, sumatzen da. Baita, oro har, euren artean berba egin eta komunikatzen direnean. Desberdintasuna ez da txarra, ez eta ona ere; hierarkizazioa da txarra, eta emakumeek beheko partean segitzen dute.

**MARIJE APODAKA**  
Hezkidetzaren teknikaria  
2000.12.1

**Txapela Errusiara**

(521/9. or.) 2000.12.15



Nazioarteko akordeo lehiaketa faboritoak irabazi zuen: Aidar Gainullin errusiarrak.

Ikusleek ematen duten Kutxasaria eta Informatika 68 saria ere berak eskuratu zituen.

**Kaleen izenak egokitu ditu udalak**

(521/10. or.) 2000.12.15

**LEHENGOA**

Andalucia kalea . . . . .	Andaluzia kalea
Arima Zuri plaza . . . . .	Arimazubi plaza
Bizkai Etorbidea . . . . .	Bizkaia Etorbidea
Etxagibel notari jauna kalea . . . . .	Etxagibel notarioa kalea
lokin Zaitegi plaza . . . . .	Jokin Zaitegi plaza
Jose Letona enparantza . . . . .	Jose Letona plaza
Jose Luis Iñarra abade jauna pasealekua . . . . .	Jose Luis Iñarra pasealekua
Kurtze Txiki plaza . . . . .	Kurtzetxiki plaza
Otalora Lizentziatua enparantza . . . . .	Otalora Lizentziaduna kalea
Santamaina kalea . . . . .	Santa Marina kalea
Sebero Altube plaza . . . . .	Seber Altube plaza
Uherkape kalea . . . . .	Uarkape kalea
Uribe auzategia . . . . .	Uribe auzoa
Zaldispe kalea . . . . .	Zalduspe kalea

**ORAINGOA**

**MU Goierrira**

(521/10. or.) 2000.12.15

Mondragon Unibertsitateak ikastetxe moduan hedatzen jarraitzeko beste hitzarmen bat sinatu zuen. Oraingo honetan, ordea, berritasun bat ere ekarri zuen hitzarmenak: Mondragon Unibertsitatea Goierrira zabaltzea, hain zuzen. MUK Goierri Goi Maila Eskolarekin elkarlana hasi zuen, hurrengo ikasturtean Mekanikako Industria Ingeniaritza Teknikoko ikasketen lehengo zikloa Ordizian ikastea ahalbidetzeko.

**Garaia, eratuta**

2000.12.22

Garaia Berrikuntza Gunea kudeatzeko elkarte sortu zen. Gipuzkoako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza, MCC eta Arrasateko Udala elkarte berriko partaide izango dira eta 3.300 milioi pezeta izango ditu Garaia irakiteko. 7.700 milioi pezetako gastua aurrez ikusi da eta Berrikuntza Gunea ikerketarako izango da, ez produktiorako. Helburua da unibertsitatearen eta gainerako enpresen premiak uztartzea.

**Goienkaria jaio da**

2000.12.1

Makina bat hilabetean isileko lana egiten ibili ondoren, abenduan ikusi zuen argia Debagoieneko aldirikari berriak: Goienkaria. Orduetik hona astero banatzen da Debagoieneko herri guztietan, guztira, 20.000 ale; euskaraz egindako idatzizko komunikabide batek inoiz ikusi izan duen zabalkunderik handiena.



**Badihardugu-ren aurkezpena**

(519/6. or.) 2000.12.1

Deba arroko euskara batzeko elkarteak aurkeztu zuten Juan Martin Elempuruk eta Miriam Txintxurretak.



**AEKren eta udalaren arteko hitzarmena**

(519/7. or.) 2000.12.1

1995a ezkerreko elkarlanera-

ko hitzarmen bat adosteko lanean aritu ondoren, udalak eta Erdi-AEK-k datozen bi ikasturteetarako hitzarmena sinatu zuten. Horren arabera, euskaltegian antolatzen diren eskolendako diru laguntza emango du udalak. Aurten, orduko 1.650 pezeta emango ditu, eta 2001. urtean, berriz, 1.750 pezeta.

**Arizmendiarristen omenez**

(519/7. or.) 2000.12.1

On Jose Maria Arizmendiarrista hil zela 24 urte bete zirela-eta, Euskadiko Kutxak omenezko plaka bat jarri zuen haren jaiotetxean, Markiñako Barinagako Iturbide baserrian, hain zuzen. Horrez gain,

Arizmendi Topaketak egin ziren eta Lankidetzaren ere. Arizmendiarristen eraldaketa proiektua ikerketa lana aurkeztu zuen Joseba Larrinagak, LANIK institutuko ikerlariak.

**Landaluze txapeldun**

(519/17. or.) 2000.12.1

Ander Landaluzek Euskal Herriko enduro txapelketa irabazi zuen beterrano mailan.



**Bi arrasatear Gipuzkoako PSEn**

(520/7. or.) 2000.12.5

Rafaela Romero eta Paco Garcia Gipuzkoako alderdi sozialistaren zuzendaritzarako izendatu zituzten. Bestalde, Blanca Roncal Euskadiko zuzendaritzarako izendatu zuten.

**Maketa Lehiaketa**

2000.12.15

Anger eta Offset taldeek Euskadi Gazteak antolatzen duen maketa lehiaketaren bigarren saria eskuratu zuten: Entzuleen saria, hain zuzen. Horri esker, X. maketa lehiaketako CDan bina kantu sartuko dituzte taldeok.



## PPk ez du ordezkorik

(521/10. or.) 2000.12.15

Alderdi Popularra zinegotzi bakarrarekin geratu zen Arrasateko Udalean, Jose Ramos Prietoren ordezkorik aurkitu ezinik zebilen eta. Jose Ramos Prieto zinegotzia azaroan hil zen, bihotzekoak jota, eta abenduan oraindik ez zegoen haren lekua betetzeko alderdikiderik. Gainera, Jose Ramos Prietoren ondorengo guztiak madrildarrak dira. PPK erabakia otsaila arte atzeratu zuen.

## Catania, MCCko lehendakari

2000.12.15

Jesus Catania altsasuarra hautatu zuen MCCk hurrengo lehendakari bezala. Erabakia hartuta egon arren, datorren urte amaiera arte ez du Antonio Cancelo ordezkatuko.

Hasieran, lau ziren Cancelo ordezkatzeko hautagaiak, laurak MCCko dibisioburuak, baina Catania indartzen joan zen hautagai nagusi moduan. MCCko Kongresuko Batzorde Iraunkorrak egin zuen hautaketa.


Horrela, Euskal Herriko kooperatiba talde handieneko



Golenkaria

hirugarren lehendakari bihurtu zen Jesus Catania.

## aurrez aurre



Garagartza gure oiloekin erabat lotuta egotea gura dugu, auzoko zerbait izatea, eta Oiloberri entzutean, Garagartzarekin gogoratzea. Oiloak eta garagartzarrak identifikatzea, azken batean.

**TOMAS ERRARTE**

*Oilo hazlea*  
2000.12.22

## Udalako plan berezia

(522/9. or.) 2000.12.22

Udalak urteko azken osoko bilkuran, besteak beste, Udala auzoko plan bereziari egindako alegazioa tarteko egitasmoa birmoldatu beharra zegoela erabaki zuen. Beraz, oraindik ere behin-behinekoa da Udalako proiektua.

Azkenengo puntuetan ETAK egindako azken atentatuak gaitzetsi ziren.

## Presoen aldeko baraualdia

2000.12.29



# URONDO

## Elektrizitatea

- \* Elektragaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismoak
- \* Proiektuak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE  
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76





Txikilandiak hamar urte bete zituen.



Arrasateko dultzaineroek edo gaiteroek, eurek dioten bezala, hōgei urte bete zituzten kaleak alaitzen.



Al Andalus elkarteak hamargarren urteurrena ospatu zuen 2000. urtean zehar.



Arrasate Telebis-tak hamar urte bete zituen otsailaren 13an. Argazkian garai bateko lantaldea ikus dezakezue.






# GORKA

**ILEAPAINDEGIA**

**LUZAPENAK • SOLARIUMA**

**ORDUTEGIA:**  
 Astelehenetan itxita • Asteartetik ostiralera: 09:30 - 20:00  
 Larunbatetan: 08:00 - 14:30

Ferrerias, 35 ARRASATE • Tel.: 943 77 13 78

Zorionak eta urte berri on!



JANTZIDENDA

# LASAGABASTER

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55



ETXE APAINKETA

Zoriontasuna

zeuk aukeratutako

bidean dago.



Zorionak eta urte berri on.

**Aldi** bi

Grupo  
**Nortekar**





*Bete-betean ospatu milurteko berria!!*

[www.ostantz-arrasate.com](http://www.ostantz-arrasate.com)







Frai Rufinok abuztuaren 2an utzi gintuen. Goian bego.



Eluska Zabalog Julian Zabarte margo lehiaketa irabazi zuen, Zarautzen.



Oihan Zubizarretak eta Iraitz Agirrek Urruzuno literatura lehiaketa irabazi zuten.



Arrasate Yoga elkarteak 20.urteurrena ospatu zuen urtean zehar.



Itoitzek abestutako Desolazio-ren antza hartu zuen Seber Altubek.



Gureak Tailerra ireki zela hamar urte bete ziren.



Leintze enpresak hiru herri autobus jarri zituen Arrasateko kaleetan.

Europcar



Arrasate Irratiak bost urte bete zituen  
107.7an emititzen hasi zela.



Eta azkenean, urtea amaitzeaz zegoela,  
Arbolapetako lanak amaitu zituzten.



La tabernera del puerto  
zarzuela arrakastatsua izan  
zen oso.



Urteko azken irudia duzue hau:  
Olentzerok erraza izan zuen, ezta?

Luke Alberdi



**Pando  
Errotuloak**

Gipuzkoa etorbidea 6  
(Legarre Pabiloia)  
Tel.-Fax: 943 79 79 70

Argidun kartelak  
Ibilgailuak  
Stand-ak  
Itsasgarriak  
Binloa  
Señalizazioak  
Lonak  
Erliebédun hizkiak

**BITTORI  
ERRETEGIA**

Eguneko menua • Kartako menua  
**Espezialitateak: legatz kokotxak eta txuletak**  
Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82



# EUROPCAR

Autoen Alokairua

MONDRAGON

ARRASATE



## EUROPCAR

DAGOENeko  
**ZURE HIRIAN**  
DAGO.

Hotel Mondragon. Biteri etorbidea, 16. Tel.: 943 792 482

**Europcar**

AUTO BAT ALOKATZEA BAINO GEHIAGO.





Garai guztietan...



...une goxoak bizi izan ditugu sukaldean

*Zorionak eta urte berri on!*

**iKER**

**SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK**

**FAGOR** 